




Bilboko
Merkataritza
Plan Estrategikoa
Plan Estratégico
de Comercio de
Bilbao



Bilbao



Bilboko Merkataritza Plan
Estrategikoa 2025 (BMPE2025)

Planaren Exekuzioa
2020-2025

2026ko otsaila

AURKIBIDEA

I.-	BMPE2025en Balantzearen Laburpen Exekutiboa	3
II.-	2020 - 2025 aldiko jardueraren xehetasuna	10
A R D A T Z A K	1 Hiriko merkataritza-eredua	11
	A.- Hirigunea eta merkataritza	12
	B.- Mugikortasun jasangarria eta merkataritza	28
	2 Omnikanalitatea eta Modernizazio Lehiakorra	35
	A.- Digitalizazioaren bultzada	36
	B.- Enpresa mailako Berrikuntza eta Lehiakortasuna	41
	C.- Enpresak birdimentsionatzea eta ekintzailatza	43
	3 Bilbo Merkataritzako, Kulturako eta Aisialdiko Hiri gisa Sustatzea	46
	A.- Komunikazioa eta Marketina	47
	B.- Merkataritza-dinamizazio berritua	55
	C.- Merkataritza eta Turismoa	57
	4 Lankidetzak publiko-pribatua perfektzionatzea	59
	A.- Elkarrekin berriro bultzatzeko eta artikulatzeko programa	60
	B.- Lurraldeko eta udalerriko merkataritza-politika instituzionalak optimizatzea	62
	C.- Bilbao retail adimen lehiakorra	63
	D.- BMPE2025 Gobernantza	65

I.- BMPE2025en Balantzearen Laburpen Exekutiboa

Bilboko Merkataritza Plan Estrategikoa 2025 (BMPE2025) lau jarduera-ardatzen inguruan gauzatu da:

- 1. ardatza: Hiriko merkataritza-eredua**
- 2. ardatza: Omnikanalitatea eta modernizazio lehiakorra**
- 3. ardatza: Bilbo merkataritzako, kulturako eta aisialdiko hiri gisa sustatzea**
- 4. ardatza: Lankidetzeta publiko-pribatua perfektzionatzea.**

Termino agregatuetan, Planak **33 jarduketa-ildo (27 ezarrita, 5 prozesuan eta 1 ezartzeke)** eta **64 ekintza egin ditu**, tokiko merkataritzaren lehiakortasuna indartzeko, espazio komertzialen hiri-kalitatea hobetzeko eta eragile publikoen eta pribatuen arteko gobernantza finkatzeko.

1. ardatza: Hiriko merkataritza-eredua

Erdigunean, Rodriguez Arias kaleko merkataritza-korridorearen eraldaketa integrala nabarmendu behar da. Ardatz horrek Abando eta Indautxu lotzen ditu eta Kale Nagusiaren merkataritza-espazio osagarria da.

Bestalde, Bilboko Zazpikaleetan merkataritza biziberritzeko hainbat jarduketa egin dira, tartean, Zazpiart programa. Haren bitartez, 24 komertzio berri aktibatu dira Alde Zaharreko Zazpikaleetan eta beste 5 Bilbo Zaharrean 2020-2025 aldian.

Plano urbanistikoan, udalak 2022ko HAPO onartu du eta merkataritzari laguntzeko eta zentralitateak finkatzeko ("Erdigunea eta Auzoetako bihotzak") ildo nagusiak jasotzen ditu. Gainera, Auzokide planekin lotutako esku-hartze ugari egin dira auzoetako hiri-merkataritzaren espazioa hobetzeko (irisgarritasuna, argiztapena, espaloiak zabaltzea eta, oro har, hiri-ekonomiaren kalitatea 8 Barrutietako auzoetan).

Mugikortasunari eta irisgarritasunari dagokionez, EGE ezartzearekin batera, logistikako soluzio jasangarriak sortzeko aurrerapausoak eman dituzte udalak eta merkataritzaren sektoreak, banaketa-zerbitzu espezifikoek eta aparkalekuen sarearen pixkanakako egokitzapenaren bitartez, logistika komertzialaren erronkei erantzun ahal izateko.

2. ardatza: Omnikanalitatea eta modernizazio lehiakorra

Bigarren ardatz honetan saltokien digitalizazioaren erronkari erantzun zaio, batik bat Planaren lehenengo urteetan, pandemiaren testuinguruan geundelako. Bilbao Ekintzak eraldaketa digitalerako proiektuak eta programak sustatu ditu eta 360 enpresatara iritsi da. Berrikuntzarekin eta lehiakortasunarekin lotutako ekimenekin osatu ditu horiek (tutoretzak eta balio erantsiko zerbitzuak diseinatzeko laguntza).

Eragile sektorialen eta instituzionalen artean partekatutako konfiantzazko lan-espazioa finkatzea izan da aldi horretako mugarrietako bat. Testuinguru horretan, Lehiakortasunaren eta Digitalizazioaren Batzorde Teknikoa eratu da eta hitzarmen aitzindaria sinatu da hirian Bilboko saltokien belaunaldi-txandaketaren eta transmisioaren erronkari modu koordinatuan erantzuteko.

3. ardatza: Bilbo merkataritzako, kulturako eta aisialdiko hiri gisa sustatzea

Sustapenaren arloan, jarraitzeko bokazioa duten hainbat proiektu egin dira hirian, hala nola #Bilbao Gabonak kanpaina, kalitatezko moda sustatzeko “Bilbao Fashion Week” kanpaina eta ehun urtetik gorako saltokien kanpaina (EHUN proiektua). Halaber, dinamizazio-ekintza ugari egin dira auzoetan tokiko merkataritza-elkarteek udalaren laguntzarekin sustatuta.

Belaunaldi berrien gainera ikuspegi estrategikoarekin, Bilbao Ekintzak Bilbao Gaztedenda ekimena jarri du martxan 2025ean, 14 eta 16 urte bitarteko gazteak merkataritza arduratsuaren eta tokiko merkataritzaren gainean sentsibilizatzeko eta motibatzeke.

Halaber, hiriko eta auzoetako sustapen komertzialak eragina izan du hornikuntza-merkatuetan, eta Erriberako Merkatura izan da erreferentea. Auzoetako udal-merkatuek ere produktu freskoaren eta gertuko zerbitzuaren eskaintzan duten rola indartu dute, eta aurrerapausoak eman dituzten ingurumenaren jasangarritasunean eta irisgarritasunean.

4. ardatza: lankidetza publiko-pribatua, azterketa eta Planaren gobernantza

Planaren zabalpena egiteko, tokiko merkataritzaren egoeraren azterketa jarraitua egin da azterketen, Merkataritzaren Erradiografiaren moduko tresnen (3.320 saltokik hartu dute parte) eta Detailshop plataforma digitalaren bitartez. Plataforma hori Kutxabanken eta BilbaoTIKren laguntzarekin garatu da.

Gobernantzaren terminoetan, 2020-2025 aldian zehar, sei udal-foro egin dira. Aurrez aurre elkartzeko espazio horietan 50 eragile baino gehiagok hartu dute parte. Foro horiei esker, Planaren aurrerapen-maila partekatu ahal izan da, eta gogoeta parte-hartzailea egin da merkataritzak hiriko hainbat ikuspegitatik dituen erronkei buruz.

Lan eta ahalegin partekatu horrek guztiak aitortza instituzionala jaso du, ohorezko accesita jaso baitzuen 2023an Barne Merkataritzako Sari Nazionaletan (udalen kategorian).

Nolanahi ere, 2030era begira hainbat erronka daude oraindik ere, tartean: inpaktu handiagoa izango duen merkataritza-dinamizazioa indartzea; elkarteen ehundura indartzea eta gaztetzea; lankidetzaren ildoak finkatzea, sektorearen ekintzailatza eta enpresen transmisioa bultzatzeko eragileen inplikazioarekin; eta negozio-eredu bideragarriak dituzten eta herritarrentzako baliotsuak diren saltokien trantsizio lehiakorra babestea.

Testuinguru horretan, 2030eko Planak BMPE2025en bidetik jarraitu beharko du eta urrats berriak egin beharko ditu enpresa-ehundura sendoagoa eta hiri hobea eraikitzeko, lankidetzatik, koordinatutako lanetik eta sinergia-ekintzatik, hori baita Bilboren bereizgarrietako bat.

BMPE2025 ekintza-lerroen gauzatze-mailaren laburpena

	Lehenespena	Gauzatze-maila 2020-2025:
1 ARDATZA: Hiriko merkataritza-eredua		
A. Hirigunea eta merkataritza		
A.1. Hiriaren bihotzaren erakargarritasuna eta bizitza		
A.1.1 Abando: arreta gunea zabaltzen "Kale Nagusitik merkataritza-ardatz osagarrietara".	Inpaktu handia 	Ezarrita 
A.1.2 Indautxu: Basurto, Errekalde eta Abando arteko konexioaren korridorea.		
A.1.3 Itsasadarraren aurrean: Abandon sartzeko korridoreak + espezializazio komertzialeko espazioak		
A.1.4. Zazpikaleak: esku-hartze bereziak	Inpaktu handia 	Ezarrita 
A.2. Auzoetako erdiguneetako bizitza komertziala eta erakargarritasuna mantentzea		
A.2.1.- Merkataritzako eta hirugarren sektorearen jardueraren ardatzak sendotzea	Eraldatzailea 	Ezarrita 
A.2.2.- Hurbileko merkataritza-kornerrak, oso merkataritza-dentsitate txikiko eremuetan	Eraldatzailea 	Ezarrita 
A.2.3.- Hornidura-merkatuen sareko espazioen eguneratze orokorra	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Ezarrita 
A.3. Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa		
A.3.1.- Etxabe komertzialen hirugarren sektoreko erabilerak	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Egiteke 
A.3.2.- Open data komertziala "alokairuen mapa dinamikoa"	Osagarria 	Ezarrita 
A.3.3.- Hutsik dauden saltokiak tratatzeko terapiak	Osagarria 	Ezarrita 
B. Mugigarritasun jasangarria eta merkataritza		
B.1. Konexio- eta disuasio-aparkalekuak + garraio publiko jasangarria bultzatzea	Eraldatzailea Osagarria 	Ezarrita 
B.2. Aparkalekuei eta haien okupazio-mailari buruzko informazio-sistema integratua denbora errealean	Eraldatzailea Osagarria 	Ezarrita 
B.3. Zamaletarako guneak eta baldintzak, TAO eremuak eta oinezkoentzako guneak aztertzea	Eraldatzailea Osagarria 	Ezarrita 
B.4. Azken miliako banaketa jasangarrirako soluzio logistikoak	Inpaktu handia 	Ezarrita 

	Lehenespena	Gauzatze-maila 2020-2025:
2 ARDATZA: Omnikanalitatea eta modernizazio lehiakorra		
A. Digitalizazioa bultzatzea		
A.1. Banakako digitalizazioa		
A.1.1. Bultzada digital indibidualeko programa	Inpaktu handia + 	Ezarrita 
A.2. Digitalizazio kolektiboa		
A.2.1.- Proiektu digital partekatuak	Inpaktu handia + 	Ezarrita 
A.2.2.- Elkarteen sarea 4.0	Inpaktu handia + 	Prozesuan 
A.2.3.- Merkataritza eta Smart Citya	Eraldatzailea Osagarria 	Ezarrita 
B. Enpresa mailako berrikuntza eta lehiakortasuna		
B.1. "One to one" lehia-tutoretza	Inpaktu handia o 	Ezarrita 
B.2. Serbitizazioa + "Bikaintasuneko" erosketa-esperientzia	Inpaktu handia 	Ezarrita 
C. Enpresak Birdimentsionatzea eta Ekintzailatza		
C.1. Enpresa-hazkundeari laguntza selektiboa emateko programak bultzatzea	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Ezarrita 
C.2. Enpresa-transmisio tradizionaleko prozesuen aldaerak	Osagarria 	Ezarrita 
C.3. Espezializazioko hiri-barrutiak: gaikako enpresa-ekimenak sustatzea + hutsik dauden lokalak optimizatzea	Osagarria 	Ezarrita 

	Lehenespena	Gauzatze-maila 2020-2025:
3 ARDATZA: Bilbo Merkataritzako, Kulturako eta Aisialdiko Hiri gisa		
A. Komunitatea eta Marketina		
A.1. Bilbo Komunitatea	Inpaktu handia + 	Ezarrita 
A.2. Auzoen Komunitatea	Inpaktu handia + 	Prozesuan 
B. Merkataritza-dinamizazio berritua		
B.1. Dinamizazioa berritzea: kaleko ekitaldietatik CRMra	Inpaktu handia 	Prozesuan 
B.2. Tokiko kontsumoa berpizteko elkarlaneko tresnak: "Bonobilbao" kanpainarekin aurrera egitea	Inpaktu handia 	Ezarrita 
C. Merkataritza eta Turismoa		
C.1. Merkataritza eta Turismoa Binomioa	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Ezarrita 

	Lehenespena	Gauzatze-maila 2020-2025:
4 ARDATZA: Lankidetza publiko-pribatua perfektionatzea		
A. Elkarreak berriro bultzatzeko eta artikulatzeko programa		
A.1. Elkarreak modernizatzea eta indartzea ("Behetik gorako" 1. maila)	Inpaktu handia + 	Prozesuan 
A.2. Elkarreei laguntzeko kudeaketa-egiturak kontzentratzea eta arrazionalizatzea ("goitik beherako" 2. maila)	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Prozesuan 
B. Lurraldeko eta udalerriko merkataritza-politika instituzionalak optimizatzea		
B.1. Udalerrian eragina duten politika instituzionalen koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzea	Inpaktu handia 	Ezarrita 
C. Bilbao retail adimen lehiakorra		
C.1. Hiri-ekonomiaren tokiko behatokia + urteko txostena	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Ezarrita 
D. BMPE2025 Gobernantza		
D.1. BMPE2025, Lidergoa eta Gobernantzarako Foroak	Inpaktu handia Eraldatzailea 	Ezarrita 

II.- 2020 - 2025 aldiko jardueraren xehetasuna

1

Hiriko merkataritza-eredua

A.- Hirigunea eta merkataritza

A.1 Hiriaren bihotzaren erakargarritasuna eta bizitza

- A.1.1 Abando: arreta gunea zabaltzen "Kale Nagusitik merkataritza-ardatz osagarrietara".
- A.1.2 Indautxu: Basurto, Errekalde eta Abando arteko konexioaren korridorea.
- A.1.3 Itsasadarraren aurrean: Abandon sartzeko korridoreak + espezializazio komertzialeko espazioak
- A.1.4 Zazpikaleak: esku-hartze bereziak

A.2 Auzoetako erdiguneetako bizitza komertziala eta erakargarritasuna mantentzea

- A.2.1.- Merkataritzako eta hirugarren sektorearen jardueraren ardatzak sendotzea
- A.2.2.- Hurbileko merkataritza-kornerrak, oso merkataritza-dentsitate txikiko eremuetan
- A.2.3.- Hornidura-merkatuen sareko espazioen eguneratze orokorra

A.3 Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa

- A.3.1.- Etxabe komertzialen hirugarren sektoreko erabilerak
- A.3.2.- Open data komertziala "alokairuen mapa dinamikoa"
- A.3.3.- Hutsik dauden saltokiak tratatzeko terapiak

B.- Mugigarritasun jasangarria eta merkataritza

B.1 Konexio- eta disuasio-aparkalekuak + garraio publiko jasangarria bultzatzea

B.2 Aparkalekuei eta haien okupazio-mailari buruzko informazio-sistema integratua denbora errealean

B.3 Zamalanetarako guneak eta baldintzak, TAO eremuak eta oinezkoentzako guneak aztertzea

B.4 Azken miliako banaketa jasangarrirako soluzio logistikoak

1. ardatza: HIRIKO MERKATARITZA-EREDUA A. HIRIGUNEA ETA MERKATARITZA	A.1	Hiriaren bihotzaren erakargarritasuna eta bizitza	Lehentasuna	Inpaktu handia	
	A.1.1	ABANDO: arreta gunea zabaltzen "Kale Nagusitik merkataritza-ardatz osagarrietara".	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	A.1.2	INDAUTXU: Basurto, Errekalde eta Abando arteko konexioaren korridorea.	Liderra:	Laguntzaileak: - Obren, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoen saila (Bilboko Udala) - Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala)	
	A.1.3	ITSASADARRAREN AURREAN: Abandon sartzeko korridoreak + espezializazio komertzialeko espazioak			

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- a. HIRIAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKOR BERRIA ONARTZEA (2022KO HAPO)
- b. MERKATARITZA EREMU NAGUSIKO ESKU HARTZEAK

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 2022ko HAPO onartzea. Plan horrek hiriko merkataritza babesteko ildo nagusiak jasotzen ditu.
- Hiriko merkataritza eremu nagusian egindako 5 esku-hartze handi

a. HIRIAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKOR BERRIA ONARTZEA (2022KO HAPO)¹

Plan horrek hainbat ildo nagusi jasotzen ditu hiriko merkataritzaren babesarekin eta sustapenarekin lotuta, zehazki hauek:


- **Erdigunea eta Auzoetako Bihotzak:** dinamismo handiko eremuak dira, bai erdigunean, bai auzoetan (jarduera eremuak –bizilagunen bilera, jarduera ekonomikoa, espazio publikoa...); etxebizitzaren, aparkalekuen eta etxabeetako trastelekuen mugaketa eremu horietan.
- **Erabilera komertzialaren definizioa** eta establezimendu komertzialen **4 azpimodalitateen erregulazioa** (debekuak edo baimenak)²
- **Etorkizuneko garapen eremuak (Plan Bereziak):** 2022ko HAPON definitutako egiturazko parametro batzuetatik abiatuta (eremu bakoitzeko erabilera tertziariorako m² eraikigarriak), Plan Berezi bakoitzak zehaztuko du merkataritzak zer posizio izango duen guztiaren diseinuan.

b. MERKATARITZA EREMUKO ESKU HARTZEAK

2020 eta 2021 artean, hainbat esku-hartze garrantzitsu egin ziren hiriko merkataritza eremu nagusian. **Rodriguez Arias kaleko merkataritza-korridorearen eraldaketa integrala** da adierazgarriena. Korridore horrek Abando eta Indautxu lotzen ditu eta Kale Nagusiaren merkataritza-espazio osagarria da.

Jarduketa nagusi horrez gain, erdiguneko merkataritza-espazioan oinezkoen protagonismoa indartzeko beste esku-hartze batzuk ere aipatu behar dira.

- **IPARRAGIRRE:** turistak "Guggenheimetik" merkataritza eremu nagusira hurbiltzeko eta oinezkoen fluxu handiagoa sortzeko aukera eman du
- **MARIA DIAZ DE HARO KALEAREN BERRIKUNTZA:** Kale Nagusia Basurtu eta Errekalde eremuekin lotzeko merkataritza-korridore osagarria da
- **AGIRRE LEHENDAKARIAREN HIRIBIDEAREN BERRIKUNTZA INTEGRALAREKIN** nagusiki oinezkoentzat izango da, eta egoteko eremuak eta landareek presentzia handiagoa izango dute.
- **COLON DE LARREATEGI** aztertzen



¹2022ko martxoa

² 2. egoera: Erabilera tertziarioa > 2.3 Modalitate Komertziala 4 azpimodalitateetan banatuta: 2.3.1. Merkataritzako lokala; 2.3.2. Merkataritzako establezimendua; 2.3.3. Merkataritzako Establezimendu Handia; 2.3.4. Merkataritza Gunea (debekatuta daude udalerri osoan, aurretik zeudenak soilik mantentzen dira)

A.1 Hiriaren bihotzaren erakargarritasuna eta bizi-tza	Lehentasuna	Inpaktu handia	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak (Bilbao Ekintza) - Bilbao Zerbitzuak - Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila Laguntzaileak: - Obra Publikoen eta Zerbitzuen Saila - Alde Zaharreko Merkatarien Elkartea - Erriberako Merkaturako Handizkarien Elkartea		

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- a. ZAZPIART: LONJA KOMERTZIALAK AKTIBATZEKO PROGRAMA | Bilbao Ekintza
- b. MERKATARITZA LONJA HUTSEN POTENTZIAL TERTZIARIOA IKUSARAZTEA | Bilbao Ekintza
- c. ERRIBERAKO MERKATUAREN SUSTAPENA | Bilbao Zerbitzuak
- d. AZKEN MILIAKO BANAKETA ZERBITZU JASANGARRIA | Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
- e. ZAZPIKALEAK ZOLATZEA | Obra publikoak eta zerbitzuak

ADIERAZLEAK 2020-2025

1. Alde Zaharreko Zazpikaleetan lokal komertzialak aktibatzea:
Bilbao Ekintzaren aurrekontua:
103.611 € + BEZa³
24 lonja aktibatuta

2. Aurrezki energetikoa Erriberako Merkaturako 2023-2025⁴:
Bilbao Zerbitzuak aurrekontua:
1.558.201 + BEZa

3.- Banaketa-zerbitzu jasangarria Alde Zaharrean

Hainbat esku-hartze egin dira aldi horretan udaleko hainbat sailek sustatuta, Bilboko Alde Zaharreko merkataritza berraktibatzeke.

Datozen urteetan, modu integratuagoan jorratu daitezke etorkizuneko lan-ildoak, BMPE2025k markatzen duen moduan, eta Zazpikaleak Berraktibatzeke plan espezifiko eta adostu baten bitartez gauzatu daitezke.

³ Zazpikaleetan eta Bilbo Zaharrean lokal komertzialak aktibatzeke programa hartzen du barne.
⁴ 220,26 MWhko (% 30,24) ekoizpena eta beste 508,12 MWh (% 69,76) saretik kontsumitua. Guztira 728.38 MWhko kontsumoa. 115,63 tona ikatz aurreztua; 137,32 tona CO₂ ekidinda eta 188 zuhaitz baliokide landatuta.

a. ZAZPIART: MERKATARITZA LONJAK AKTIBATZEKO PROGRAMA
ALDE ZAHARREKO LONJA KOMERTZIALEN ALOKAIRURAKO LAGUNTZA + ABALA

Alde Zaharreko lonja komertzial hutsen egoeraren gaineko azterketa sakona egin eta gero (Bilbao Ekintza, Alde Zaharreko Elkartea eta jabeak), Bilbao Ekintzak programa espezifiko bat diseinatu eta garatu zuen 2022an **Alde Zaharreko Zazpikaleetako** (Somera, Artekale, Dendarikale, Harategi Zahar, Belostikale, Barrenkale eta Barrenkale Barrena) **lokal hutsetan enpresa-ekimenak sortzea sustatzeko**.

Programa 2025eko abenduaren 31ra arte egon da indarrean, eta 2024an Bilbo Zaharrera ere zabalduta zen. Gainera, etorkizun hurbilean enpresen transmisiorako prozesuak eta hiriko beste eremu/auzo batzuk ere sartu dira programan.

Laguntza-programaren oinarritzko ezaugarriak:

- Alokairuaren gastuaren % 50 12 hilabetetan zehar eta/edo abalak formalizatzea⁵.
- Edozein jarduera motarentzat dago zabalik, baina txikizkako merkataritza, artisautza eta existitzen den eskaintzarentzako osagarriak lehenetsiko dira.



Moda:	6 establezimendu
Kosmetikako produktuak, ile-apaindegiak, xaboiak, etab.	6 establezimendu
Bigarren eskukoak eta konponketak:	5 establezimendu
Hezkuntza eta kultura:	2 establezimendu
Diseinua eta etxea:	2 establezimendu
Elikadura:	2 establezimendu
Beste batzuk:	1 establezimendu

⁵ Hitzarmena Elkargi SGRrekin abalen estaldurarako.

b. MERKATARITZA LONJA HUTSEN POTENTZIAL TERTZIARIOA IKUSARAZTEA ERAKUSLEIHOEN ERAKUSKETAK ETA ZIRKUITU ARTISTIKOAK

- **“Mendian Gora” erakusketa** EMMOA Fundazioarekin lankidetzan. Alde Zaharreko lonja hutsen 7 erakusleho komertzialetan egin zen erakusketa, Bizkaiko alpinismoaren historiako material originalekin.⁶



- **“Epidermis”**: Bizkaiko Goi Mailako Diseinu Zentroko ikasleek Alde Zaharreko 15 merkataritza-erakusleho diseinatu eta egin zituzten BilbaoBizkaiaDesignWeek21en barruan.



c. ERRIBERAKO MERKATUAREN SUSTAPENA

2021ean, Bilbao Zerbitzuak erakundeak “Bilboko Hornidura Merkatuen Udal Sarearen Gida Eskema” dokumentua egin zuen eta Erribera Merkatura eraldatzeko programa espezifiko ezarri zuen, merkatuak adimendun egiteko, jasangarritasun energetikorako, ingurumen-jasangarritasunerako eta irisgarritasunerako.

Dokumentu horretatik abiatuta, Bilbao Zerbitzuak erakundeak esku-hartze hauek egin zituen **Erriberako Merkatuaren kontsumoak murrizteko eta energia berriztagarriak integratzeko.**

- **Hozte-sistema industrial berria instalatzea (2022)**: sistema berriak ura erabiltzen du hozteko gas kutsakorrak erabili beharrean.
- **Eguzki-instalazio fotovoltaikoa (2023) eta bateria-instalazioa (2024)**
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoaren **errendimendua monitorizatzea** mugikorrek aplikazioaren bitartez [Webgunearen esteka](#)

Halaber, Merkatura joaten diren **bezeroen irisgarritasuna hobetzeko** (5 igogailu, 9 eskailera mekaniko eta eskailera-igogailu 1), merkantzien barne-garraioa errazteko (6 karga-jasogailu) eta **postuen digitalizazioan aurrerapausoak emateko (wifi sarea handitzea)** ekintzak egin dira

Azken ekintza horri esker, postuetako TPVak —datafonoak eta pisu digitalak— Internetera konektatu daitezke, txartel digitalak Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzeko eta BATUZen betebeharrak errazago bete ahal izateko. Aldi berean, erosleen esperientzia ere hobetzen da.

⁶ Somera 17, Artekale 18, Belostikale 6, Belostikale 7, Loteria 3, Victor 4 eta Gurutze 11

d. AZKEN MILIAKO BANAKETA ZERBITZU JASANGARRIA

2023an Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak Heineken Espainiarekin eta bere Euskodis banatzailearekin batera ezarritako ekimena da, urtean 1.650 kg CO₂ inguru murrizteko eta, hala, Bilboko airearen kalitatea hobetzeko eta alde zaharreko zarata murrizteko.



Proiektu arrakastatsua izan da: banaketa ibilgailu % 100 elektrikoen flota txiki batekin egiten da eta ekimena udalerri osora zabaltzeko da, Errekalde auzoan dagoen zentro propio batetik egiten baita banaketa. Halaber, proiektua erreferentia bihurtu da estatuko beste hiri batzuentzat eta beste banatzaile batzuentzat, halako ekimenak martxan jartzen eta/edo aztertzen hasi baitira.

e. ZAZPIKALEAK ZOLATZEA

Obra Publikoen eta Zerbitzuen Sailak esku-hartze hauek egin ditu 2020 – 2025 aldian:

- Zoladuraren erresistentzia hobetzeko soluzio teknikoa "lauzaren lodiera handiagoa hormigoizko plataformaren gainean" (Foru kalea, Dorre kalea).
- Zazpikaleak zolatzeko fase berria Bidebarrieta kalean.

A.2 Auzoetako erdiguneetako bizitza komertziala eta erakargarritasuna mantentzea A.2.1.- MERKATARITZAKO ETA HIRUGARREN SEKTOREAREN JARDUERAREN ARDATZAK SENDOTZEA	Lehentasuna	Eraldatzailea	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak Obren, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoen Saila (Bilboko Udala)	Laguntzaileak: - Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila (Bilboko Udala) - Bilbao Dendak - Zonaldeko merkataritza-elkarteak	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- a. MERKATARITZAREN HIRI IRUDIA HOBETZEKO LAGUNTZA
- b. AUZOETAKO BIHOTZAK SUSTATZEA 2022KO HAPO-REN BITARTEZ
- c. ESKU HARTZEAK AUZOETAKO BIHOTZETAN
- d. AUZOKIDE PLANAK: AUZOETAKO ESPAZIO KOMERTZIALA HOBETZEKO ESKU HARTZEAK

ADIERAZLEAK 2020-2025

Inpaktu komertziala duten 10 obra baino gehiago egin dira Auzoetako Bihotzetan

11 esku-hartze egin dira Auzokide 2020 – 2023 Planaren bitartez

Auzokide 2024 – 2027 Plan berria onartu da

14 esku-hartze egin dira Auzokide 2024 – 2027 Planaren bitartez

a. MERKATARITZAREN HIRI IRUDIA HOBETZEKO LAGUNTZA

Surbisaren esku-hartze eremuetan (Zazpikaleak, Atxuri, Bilbo Zaharra, San Frantzisko, Zabala, Irala, Zazpilanda, Uretamendi, Peñaskal, Uribarri (**hainbat eraikin*)) merkataritzako lokalen kanpoaldea hobetzeko sustapen-lerro bat dago, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza baten bitartez. Horrekin, lokalek hiri-ingurunean izan dezaketen balizko inpaktu negatiboa murriztu nahi da, fatxadak, erakusleihoak eta sarbideak hobetuz, egokituz eta/edo modernizatuz, irisgarritasun-baldintza optimoak lortzeko. Sustapen hori jardueraren bat duen lokalei zein hutsik daudenei zuzenduta dago (*Ikusi A.3. Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa eta A.3.3 Lonjak tratatzeko terapiak*).

b. AUZOETAKO BIHOTZAK SUSTATZEA 2022KO HAPO-REN BITARTEZ

Hiriko auzoetan jarduera eta bizitza soziala metatzeko hiri-zentralitateak sortzea eta indartzea, hainbat helbururekin: bizitza soziala eta ekonomikoa dinamizatzea, merkataritza biziberritzea; gertuko zerbitzuak izatea, etab.

c. ESKU HARTZEAK AUZOETAKO BIHOTZETAN

2020-2025 aldian, hainbat esku-hartze egin dira auzoetako bihotzetan, espazio atseginagoak sortzeko eta, horrela, pertsonak bertatik igarotzea errazteko, merkataritzari sendotzen laguntzeko eta/edo merkataritzaren sektoreko edo hirugarren sektoreko ezarpen berriak erakartzeko.

1. barrutia DEUSTU

Deustu auzoa

Madariaga Etorbidean merkataritza-espaloiak zabaltzen jarraitzeko (Rafaela Ybarra kalearen eta Iruñea kalearen artean) lizitazioa prozesuan dago, eremu horren egoteko erabilera eta merkataritzako erabilera indartzeko.



Ibarrekolanda Auzoa - San Ignazio

Benidorm: Benidorm kaleko espaloiak handitzea (Orixe – Ibarrekolanda). Ibarrekolanda kaleko espaloiak handitzeko lizitazioa prozesuan dago.

2. barrutia URIBARRI

Uribarri eremua

Espaloiak zabaltzea eta kaleak oinezkoentzat jartzea (Okendo Almiranteen kalea eta Orreagako Guduaren kalea, "osorik"), eskolako bide berriak sortzeko (Uribarriko eskolen eta Etxebarria parkearen arteko lotura), "irekitzeak" sustatzeko eta Trauko kaleko merkataritza-ardatza bultzatzeko.



3. barrutia OTXARKOAGA – TXURDINAGA

Otxarkoaga

Otxarkoagako Txotena merkataritza-gune zaharrerako sarbidea hobetzea. Jarduera soziokulturalak eta komertzialak egiten dira espazio horretan, eta Orain Otxar izeneko hiri-berroneratzeko programaren barruan birgaitu zen (Bilboko Udal Etxebizitzak).

Txurdinagako ekobulebarrari dagozkion faseak gauzatzea.



4. barrutia **BEGOÑA**



Santutxu auzoa

Fika kalea eta Iturribide (Lidl inguruan) lotzen dituen igogailua instalatzea.
Club Deportivoren Zirko Amateurraren kaleko espaloiak handitzeko lanak amaitu dira.

5. barrutia **IBAIONDO**



Santutxu auzoaren eta Zazpikaleen arteko lotura: Iturribide kalearen hiri-hobekuntza integrala, Iturribide eta Aurrekoetxea kaleen arteko bidegurutzetik Zazpikaleetara (espaloiak zabaltzea, bizikleten aparkalekuak...).

BilbaoArtarekin elkarlanean, Iturribideko lonjen pertsianen estetika hobetu nahi da, betiere jabeen baimenarekin, "Aire zabaleko arte-erakusketa" bat sortzeko helburuz.

Sokoloetxe auzoaren eta Zazpikaleen arteko Konexioa: Solokoetxe eskaileretan bi igogailu jartzea, Erronda kaletik Solokoetxe instituturara oinezkoentzako konexioa errazteko.

Bilbo Zaharra

San Frantzisko kaleko espaloiak handitzen jarraitzeko eta Cantalojas kalea oinezkoen eremu bihurtzeko lanak egin dira.

7. barrutia **ERREKALDE**



Leon de Uruñuela kalea oinezkoen eremu bihurtzea

Espaloiak handitzea **Camilo Villabaso kalean** (Leon de Uruñuela - Altube kalea)

Errekalde Plazako pergolaren estalkia egitea

Gordoniz kalea berrurbanizatzea (Autonomia kalea-Gaztelu plaza)

8. barrutia **BASURTU-ZORROTZA**



Luis Briñas kaleko espaloiak handitzeko lanak (Ingeniaritza Eskolaren eta Perez Galdos eta Autonomia kaleen arteko zatia)

d. AUZOKIDE PLANAK: AUZOETAKO ESPAZIO KOMERTZIALA HOBETZEKO ESKU HARTZEAK

BMPE2025 indarrean egon den aldian zehar, aurreko Auzokide 2020 – 2023 Plana garatu da eta egungo Auzokide 2024-2027 Plana onartu da eta jarri da martxan.

Plan horiek dira zortzi Barrutietako Kontseiluetan herritarren eta merkataritza-sektorearen eskariak bideratzeko udal-tresna nagusiak —eremu bakoitzeko elkarteen bitartez—. Marko horren barruan hainbat esku-hartze sustatu dira bizilagunen gastua auzoan finkatzeko. Horretarako, irisgarritasuna eta argiztapena hobetu dira eta espaloiak handitu dira, hau da, merkataritzako ardatzen eta “auzoetako bihotzen” hiri-kalitatea (adeitasuna) handitu da.

Auzoetan merkataritza-jarduera hobetzeko ekintza nagusiak

Auzokide 2020 – 2023 Plana	Auzokide 2024- 2027 Plan Berria
- Erdikoetxe kalearen berrurbanizazioa - Ricardo Arregi kaleko espaloia handitzea eta argiteria berritzea - Aranbarri Musikariaren plazaren berrurbanizazioa - Karmelo plazaren hobekuntzak - Julian Gayarre-Amateur Zikotik Boluetako metro-geltokira sartzeko eskailerak hobetzea - Aurelio Arteta margolariaren kalea urbanizatzea (Particular Allende-Aurelio Arteta) - Zamakola kaleko 1 zenbakitik 30era berrurbanizatzeko lanak - Elkano kalearen hobekuntza (argiztapena eta beheratutako pasabideak egitea) - Pio Baroja plazaren urbanizazioa hobetzea - Espaloia handitzea Betolaza kaleko 51. zenbakian - Zabalbide kalean espaloiak handitzea	- Rafaela Ybarra kalea hobetzea (San Pedro plazatik Botika Zaharrera) - Tivoli kalearen berrurbanizazioa - Uribarri A zeharkaleko espaloiak handitzea - Tivoli zeharkaleko espaloiak handitzea - Julian Gayarre eta Bolueta arteko konexio mekanizatua + Bilbo-Galdakao errepideko galtzada egokitzea - Landaburu baserriko - Errosario Santuko espaloiak handitzea - Sagarminagako igogailua - Eretza mendia kaleko 1 zenbakitik 25era bitarteko espaloiak handitzea - San Mamesko eta Areilza Medikuaen kaleko argiztapena hobetzea - Juan de Ajuriaguerra kaleko espaloiak handitzea - Rodriguez Arias kalea: merkataritza-korridorearen proiektuarekin jarraitzea (Campuzano Plaza- Areilza medikuaren kalea) - Fernandez del Campo kalearen urbanizazioa (G. Concha-Hurtado de Amezaga) - Kirikiño plazaren birmoldaketa - Zorrozoiti kalea hobetzea Abaro eta Zabalbidea kaleen artean

AUZOKIDE PLANA



**AUZOKIDE 2024
PLANA 2027**



A.2 Auzoetako erdiguneetako bizi-tza komertziala eta erakargarritasuna mantentzea A.2.2.- HURBILEKO MERKATARITZA-KORNERRAK, OSO MERKATARITZA-DENTSITATE TXIKIKO EREMUETAN	Lehentasuna	Eraldatzailea	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak (Bilbao Ekintza)	Laguntzaileak: - Udal Etxebizitzak - Hiri Berroneratze Eremua (SURBISA) - Eremuko elkarteak	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020 – 2025 aldian, hainbat azterketa eta lan egin ditu Bilbao Ekintzak. Dentsitate baxuko fokuen gaineko garapenen egoerak aztertu ditu, hiru eremu hauetan batez ere; Bilbo Zaharra, Otxarkoaga-Txurdinaga eta Ibaiondo.

Bilbo Zaharra: 2024an Zazpikaleetan ezarritako alokairua ordaintzen laguntzeko + abalantzako programa Bilbo Zaharrera zabaltzea.


Otxarkoaga – Txurdinaga: Otxarkoaga auzoko errealitate sozioekonomikoaren azterketa (2022-2023); merkataritza-jardueraren ekintza/birsortze proposamenak

Ibaiondo (2023-2024):

- San Adrian:** artisau ekintzaileentzako laguntza; udal-etxebizitzaren konpromisoa San Adriango lonjen egungo egoeraren gaineko azterketa espezifiko egiteko, lonja horien balizko erabileraren eta okupazioaren gaineko erantzun bat emateko.
- Irala:** Lonja hutsetan saltokiak egiteko programa diseinatzea (Errege Katolikoaren ardatzean); bizpahiru lonja aukeratzea eta alokairua finantzatzea gutxienez 4 hilabetez eta gehienez 6 hilabetez.

ADIERAZLEAK 2020-2025

Okupazioa: 5 lonja komertzial Bilbo Zaharrean (2024 – 2025)



Elikadura	2 establezimendu
Arte eta Moda	2 establezimendu
Konponketak	1 establezimendu

A.2 Auzoetako erdiguneetako bizi-erakargarritasuna mantentzea A.2.3.- HORNIDURA-MERKATUEN SAREKO ESPAZIOEN EGUNERATZE OROKORRA	Lehentasuna	Inpaktu handia Eraldatzailea	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak Bilbao Zerbitzuak	Laguntzaileak: - Bilboko Udaleko Osasuna eta Kontsumoa Saila - Handizkarien elkarte/kolektiboa - ESHBI-Erribera Sukaldaritza Eskola	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. BILBOKO HORNIDURA MERKATUEN UDAL SAREAREN GIDA ESKEMA

2021ean, “Bilboko Hornidura Merkatuen Udal Sarearen Gida Eskema” dokumentua egin zuen Bilbao Zerbitzuak erakundeak, eta Bide Orri bat ezarri zuen bertan udal hornidura-merkatuen sarea eguneratzeko eta modernizatzeko, auzoetako hiri merkataritza-bilbea eta bertako bizilagunen bizi-kalitatea mantentzeko.

- Erriberako merkatua: “Bandera-ontzia”
- Labairu merkatua: “Ingurunearekin bat egiten duena”
- Zabalguneko merkatua: “Ingurunera egokitzen dena”
- Otxarkoagako merkatua: “Auzoko merkataritza-gunea”
- Deustuko merkatua: “Bidegurutzeara”
- Trauko merkatua: “Merkatua bere adierazpenik xumeenean”
- San Ignazioko merkatua: “Amaiera kudeatzen” Merkatu hori 2023an itxiko da, Bilbao Zerbitzuen Administrazio Kontseiluak 2023ko urriaren 6an egindako saioan adierazi baitzuen San Ignazio merkatuan aktibo jarraitzen zuten postuak erabiltzeko eta ustiatzeko bi kontzesio-harremanak iraungi zirela.

ADIERAZLEAK 2020-2025

BILBOKO HORNIDURA MERKATUEN UDAL SAREAREN GIDA PLANA (2021)

MERKATUETAN KONTSUMOAK MURRIZTEA

Zabalguneko Merkatua 2024- 2025:

- Exekuzioaren aurrekontua 141.093,65 € + BEZa
- Ekoizpena: 104,71 MWh 2024-2025
- Aurrezkia: 41,88 tona ikatz; 49,74 tona CO₂ ekidinda eta 68 zuhaitz baliokide landatuta.

Otxarkoagako Merkatua 2024- 2025:

- Exekuzioaren aurrekontua: 136.655,95 € + BEZa
- Ekoizpena: 119,52 MWhko (% 42,47) ekoizpena eta beste 161,92 MWh (% 57,53) saretik kontsumitua. Guztira 281,44 MWhko kontsumoa.
- Aurrezkia: 47,81 tona ikatz; 56,77 tona CO₂ ekidinda eta 78 zuhaitz baliokide landatuta.



ESQUEMA DIRECTOR DE LA RED MUNICIPAL DE MERCADOS DE ABASTOS DE BILBAO

Diagnóstico de Situación y Hoja de Ruta para su impulso

Dokumentu horretan, Erriberako Merkatua eraldatzeko programaz gain (*Ikusi A.1.4 Zazpikaleak: Esku Hartze Bereziak*), auzoetako merkatuetako hainbat lan-arlo jasotzen dira, hala nola hiri-ingurunearen kalitatea mantentzea eta hobetzea, instalazioak erabiltzeko baldintzak hobetzea (Labairu eta Deustuko Merkatuen Hezetasunak) edo salmenta-postuak homogeneizatzea.

2023 eta 2024 urteetan, Bilbao Zerbitzuak erakundeak ekintzak egin zituen **udal-merkatuetako kostu energetikoak murrizteko**, zehazki hauek:

- Kostu energetikoak murriztea Zabalgunean eta Otxarkoagan eguzki-panelen bitartez (2024)
- Merkatuko elementu komunen energia elektrikoaren hornikuntza.kontratuaren titulartasuna Bilbao Zerbitzuak erakundeari transferitzeko aukera 2023ra arte⁷.

Egun, Bilbao Zerbitzuak erakundea gogoeta estrategikoa egiten ari da merkatuen kudeaketa-ereduaren gainean, honako termino hauetan:

- **Zeharkako kudeaketa -egungo eredia- edo kudeaketa zuzenaren eredia** negozioei mantentze-gastuekin laguntzen dieten merkatuetan.
- **Enpresa-kudeaketa eta marketinekoa:** markaren irudiaren, sustapen-kanpainen, enpresen lehiakortasunaren edo belaunaldi-txandaketaren gainean. Bilbao Zerbitzuen erakundeak baliabide mugatuekin egiten du lan zeharkako kudeaketa duten udal-merkatuen Sustapen Plana garatzeko garaian: Deustu, Zabalgunea, labairu, Otxarkoaga eta Trauko (*Ikusi aurrerago 3. A.2 - Auzoen Komunitatea ardatzean*).

⁷2024an lehengoratu egin zen neurria eragindako merkatuekin hala adostuta, Bilboko Udalak duen energia elektrikoaren hornitzailearen kontratua garestitu egin zelako. Hornikuntza baldintza ekonomiko hobeagoetan lortzeko aukera eman zitzairen merkatu guztiei.

A.3 Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa A.3.1.- ETXABE KOMERTZIALEN HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAK	Lehentasuna	Inpaktu handia Eraldatzailea	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Egiteke	
	Liderrak	Laguntzaileak:	
	- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)	- Obren, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoen saila (Bilboko Udala) + Hiri Berroneratze Saila (SURBISA) - Bilbao Dendak	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020 eta 2025 artean, Bilbao Ekintzak hainbat ekimen independente sustatu ditu hiriko hainbat eremutan merkataritza-lonjak hobetzeko eta aktibatzeke, Hiri berroneratzearekin (SURBISA) eta Obren, Hiri Plangintzaren eta Proiektuen Sailarekin koordinatuta.

Merkataritza-sektorearen birmoldaketa eta horren ondorioz eremu jakin batzuetan izandako husteak direla eta, lonja hutsen erabilera alternatiboen gaineko gogoeta egin behar da, jarduera komertzial soiletik harago.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Garatzeke

BMPE2025ek jasotzen zuen moduan, gogoeta hori koordinazio-espazio espezifiko batetik jorratu beharko litzateke (Batzorde Teknikoa) udaleko sailen artean adostutako lana errazteko. Batzorde Tekniko hori —etxabe komertzialetako eta lonja hutsetako erabilera tertziarioetan zentratzen da— hiriko hurrengo merkataritza Plan Estrategikoan aktibatu beharko litzateke, Bilbao Denden, Bilbao ekintzaren, Hiri Berroneratzearen (SURBISA) eta Hiri Plangintzaren parte-hartzearekin.

A.3 Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa	Lehentasuna	Osagarria	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: - Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala) Laguntzaileak: - Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.		

JARDUEREN DESKRIBAPENA

Aldi horretan zehar, Bilbao Ekintzak lan-metodologia bat formalizatu du Finantzen Erregistro Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren Alokairu Merkatuaren Estatistikaren (AME) datuei garrantzia emateko, eta honetarako aukera eman du:

a. PREZIOEN EBOLUZIOA MONITORIZATZEKO ADIERAZLEEN HAUTAKETA

b. TXOSTENAK FORMALIZATZEA

a. PREZIOEN EBOLUZIOA MONITORIZATZEKO ADIERAZLEEN HAUTAKETA

Bilbao Ekintzak adierazle estatistiko sendo batzuen gainean egin du azterketa —stock prezioak eta hiruhilekoko prezio dinamikoak—, hiriko merkataritza-lonjen dinamismoa (formalizatutako alokairu-kontratuen kopurua) eta errenten prezioen maila kokatzeko eta aztertzeke, barrutien, auzoen eta ardatz komertzialen arabera.

b. TXOSTENAK FORMALIZATZEA

2023tik aurrera, Bilbao Ekintzak bi txosten egin eta formalizatu ditu Bilbon 2020az geroztik dauden lonja komertzialen eta establezimendu guztien prezioen errealitatea eta eboluzioa deskribatzeko. Horri dagokionez, bi dokumentu egin dira: lehenengoa, 2024ko lehen hiruhilekora bitarteko datu eguneratuekin, eta, bigarrena, 2025ekoa, 2025eko lehen hiruhilekora bitarteko informazio estatistiko eguneratuarekin.



ADIERAZLEAK 2020-2025

- 2 txosten formalizatzea eta Bilbao Ekintzaren barne-azterketa (2024ko I. hiruhilekoa eta 2025eko I. hiruhilekoa)

A.3 Merkataritza-fatxadaren kudeaketa proaktiboa

A.3.3.- HUTSIK DAUDEN LONJAK TRATATZEKO TERAPIAK

Lehentasuna

Osagarria



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Laguntzaileak:


- Hiri Berroneratze Eremua (SURBISA)
- Ikastetxeak; kultura/arte arloko kolektiboak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

Lonja hutsen ikusizko inpaktua murrizteari dagokionez, 2020 – 2025 aldiaren ekintza nabarmen hauek egin dira:

a. Esku-hartze artistikoak

- **DENDART programa:** esku-hartze artistikoa egin da itxitako lonjen pertsonetan alokairua ordaintzen laguntzeko programak sustatu diren kaleetan eta ibilbide kultural bat osatu da (Bilboko pertsonaia eta elementu erreferenteak). 2020-2025 aldiaren 20 esku-hartze egin dira kale hauetan: San Frantzisko, Maiatzak Bi, Hernani, Castillo Jenerala, Lamana, Mariaren Bihotza Plaza, Aretxaga eta Gorteak 37.510 euroko aurrekontuarekin.



• Iturribide kaleko lonjetan horma-irudi artistikoak

egitea: Tokiko 9 artistak hartu dute parte proiektuan, eta lonja hutsetako eta establezimendu komertzialetako 52 pertsona dekoratu dituzte.



b. Lonja komertzialen kanpoaldea hobetzeko laguntzak



- **Zubirik 2021-2025 Plana:** Bilbo Zaharreko (San Frantzisko eta Zabala) lonja komertzialen kanpoko itxura (errotuluak, ateak...) hobetzeko dirulaguntzak artikulatzeko programa. 133.730 euroekin 38 saltoki hobetu dira.



ADIERAZLEAK 2020-2025

- 110 esku-hartze egin dira 3 programaren bitartez

B.1 KONEXIO- ETA DISUASIO-APARKALEKUAK + GARRAIO PUBLIKO JASANGARRIA BULTZATZEA

Lehentasuna

Eraldatzailea
Osagarria



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila

Laguntzaileak:

- Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala)

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- KONEXIO/DISUASIO APARKALEKUAK**
- EMISIO GUTXIKO EREMUA (EGE) EZARTZEA**
- BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATZEA**

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Konexio/disuasio aparkalekuen esku-hartzeak: 0
- EGE ezartzea
- EGEn aldeko iritzi-azterketak
- EGEn urteko lehen txostena: aurreikusitako kalitatearen helburuak betetzea
- Udal-bizikleten kopurua: 1.200 unitate
- Bizikletentzako 11 aparkaleku instalatzea

a. KONEXIO/DISUASIO APARKALEKUAK

Erosketak egiteko desplazatzen diren pertsonen —bai Bilbo kanpokoan, bai hainbat auzotakoan— sarbidea errazteko konexio eta/edo disuasio aparkalekuen sarea gaitzeari eta garraio publikoaren sarearekin (metroa, autobusa eta tranbia) integratzeko aukerari buruzko hasierako gogoetan ondorioztatu zen udal-mugartetik kanpo jarri behar zirela aparkaleku horiek.

Errealitate horrek beste eragile batzuen parte-hartzea eskatzen du, udalerriaz gaindiko jarduketa delako eta udalaren eskumenetatik kanpo dagoelako. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko metropoli eremuko garraio publikoaren operadoreak ere inplikatur daude.

Horri dagokionez, disuasio-aparkalekuak desplazamenduen jatorrian jarri behar dira, ez helmugan. Etorkizunera begira, CTBk edo Bizkaiko Foru Aldundiak diseinatu eta gauzatu beharko ditu halako azpiegitura motak metropoli eremuan.

b. EMISIO GUTXIKO EREMUA (EGE) EZARTZEA

EGE ezarri izanak eragin handia eta zuzena du eguneroko merkataritza-jardueran (ibilgailuen sarbidea, neurrietara pixkanaka egokitzea, etab.); baina, etorkizunera begira, erdiguneko merkataritza eremua hobetzen eta oro har osasun publikoa eta airearen kalitatea hobetzen lagunduko du. Horrez gain, hiriaren mugikortasun jasangarria sustatuko du, Europar Batasuneko zuzentarauen eta 2030erako aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzearen ildotik.

Hauek dira helburu nagusiak:

- EGEren araudia indarrean sartzea: 2024ko ekainaren 15ean Abando eta Indautxu auzoetan (ibaiak eta Sabino Arana, Trenbidearen hiribidea, Autonomia, San Frantzisko eta Bailen kaleek mugatutako espazioa).
- Pixkanaka ezarri da eta hainbat luzamendu izango ditu 2030era arte, errazago egokitzeko.
- Erregulazioa lanegunetan aplikatzen da, astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 20:00etara. Matrikulak irakurriz kontrolatzen da sarbidea, beraz, EGEa sartzen diren ibilgailuek ez dute ingurumeneko pegatinarik edo bereizgarririk eraman beharko.
- Arauaren alderdi zehatzei eta informazio-tresnei buruzko kanpaina informatiboak; EGEren publizitate-kanpaina "Respira Ondo" lelopean; Informazio-bulegoa Ripa kalean.
- B ibilgailuek ezingo dute EGEa sartu 2025eko ekainaren 15etik aurrera.

EGE ezarri da Bilbon eta hiriarentzat dakartzan onurak ulertuz joan dira herritarrak, iritzi-azterketen arabera

- Txostena argitaratuko da urtero araudi horren aplikazioaren gaineko jarraipena egiteko eta emaitzak jasotzeko.



¿Qué vehículos pueden acceder según su distintivo ambiental?



Los vehículos B podrán acceder a los parkings públicos autorizados hasta el 31/12/2029

Soy comerciante/hostelero en la ZBE...

• Cómo me afecta

https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=127923!6194&language=es&pageid=1279235266194&pagename=aonet%2FPPage%2FBIO_contenidoFinal

c. BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATZEA

Mugikortasun jasangarria bultzatzeko eta motordun ibilgailuen presentzia txikiagoa duten ingurune komertzialak sustatzeko, Mugikortasun Sailak inbertsio esanguratsua egin du 2020–2025 aldian azpiegitura berrietan —batez ere bidegorrietan—, zein bizikletaren erabileraren sustapenean, prestakuntzan eta bultzadan, eta programa espezifikoak garatu ditu.

Hala, handitu egin da bizikleta elektrikoen kopurua eta 1.200 unitate lortu dira. Gainera, 2026ko ekitaldian, sistemaren 20 puntu berri jarriko dira. Bizikleten aparkaleku seguruak jarri dira 11 aparkalekutan.

B.2 APARKALEKUEI ETA HAIEN OKUPAZIO- MAILARI BURUZKO INFORMAZIO SISTEMA INTEGRATUA DENBORA ERREALEAN	Lehentasuna	Eraldatzailea Osagarria	
	2020-2025eko exekuzio- maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila	Laguntzaileak: - Ekonomiaren Garapen eta Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala) - Bilboko Aparkalekuen Sarea	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. TXANDATZE APARKALEKUEN
OKUPAZIO MAILA DENBORA
ERREALEAN JARRAITZEKO
GAILUAK

Txandatze-aparkalekuak integratzea, okupazioaren, plaza moten, okupatutako plaza libre eta okupatu moten eta abarren gaineko datuak emateko denbora librean.

2020- 2025 aldian, jarduketa hauek egin dira:

- Garapenaren azterketa funtzionala
- Udal-webgunean integratzea BilbaoTIKen lankidetzarekin
- Bilboko sarreretan informazioa ematea panel informatiboen bitartez.
- Konexio-datuak biltzea eta probak egitea hiria bisitatzen duten gidariei informazio erabilgarri hori modu iraunkorrean emateko.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Txandatze-aparkalekuen konexio-datuak lortzea

B.3 ZAMALANETARAKO GUNEA ETALDINTZAK, TAO EREMUA ETALDINTZAKO OINEZKOENTZAKO GUNEA AZTERTZEA	Lehentasuna	Eraldatzailea Osagarria	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila	Laguntzaileak: - Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala) - Bilbao Dendak - Zonaldeko merkataritza-elkarteak	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- a. ORDENANTZA BERRIAK
- b. TAO/OTA EREMUA AUZO GEHIAGOTARA ZABALTZEA
- c. KONTROL KAMERAK INSTALATZEA

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 2 ordenantza berri egokitu eta aldatu dira eta eguneraketa 1 abian dago
- TAO/OTA eremua 6 auzotara zabaldu da

1. ardatza: HIRIKO MERKATARITZA-EREDUA
B.- MUGIGARRITASUN JASANGARRIA ETA

2. ardatza:

3. ardatza:

4. ardatza:

a. ORDENANTZA BERRIAK

2022tik aurrera, aldaketak egin dira ordenantza hauetan:

a1. TAO/OTA aparkalekuen ordenantza (4 ordenantzaren bateratzea)

Zamalanak erreserbatutako eremuetatik kanpo, TAOren sektore urdin eta berdeetan.

- Denbora-muga 30 minutuko tartetan luzatzeko aukera, aurretiazko eskaera eginda eta baimenarekin
- Ez atera txartela kutsakorrak ez diren flotentzat



2025 – 2026an aldatu egin da onartutako ordenantza hori, ordenantza berria bi urtez martxan egon ondoren.

a2. Oinezkoentzako lehentasunezko eremuen ordenantza (Zazpikaleetako atal espezifiko)

Saltoki eta zerbitzuen gaineko eragina: Ibilgailuentzako sarbide mugatua oinezkoen lehentasunezko eremuetan, baldintza hauetan:

- Zamalanak eta jarduera komertzialarekin lotutako lanak egin behar dituzten merkatariek, haien ibilgailu propioarekin: 2 eserlekuko ibilgailu mistoak, furgonetak eta kamioiak, 3,5 tonatik beherakoak (5,5 tonatik beherakoak Alde Zaharrean). Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 11:00etara. 30 minutu gehienez ere sarbide eta egun bakoitzeko. (Zazpikaleetan luzatu egin daiteke aldez aurretik eskatuz gero)
- Konponketa-tailerrak: Ez zaie sarbideko eta eguneko 30 minutuko muga aplikatzen, baina beharrezkoa da matrikulak aldez aurretik edo ondoren erregistratzea
- Hotelak, ostatuak eta pentsioak: matrikula bakarra lotu dezakete baimen bakoitzarekin, eta establezimenduak gonbidatu beharko du. 15 minutu gehienez ere, baina sartzeko baldintza espezifikoak ezartzeko aukerarekin, kokapen zehatz bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Ordenantza martxan dago une honetan eta ordenantzaren eraginkortasuna mantentzen duen aplikazioa hobetzeko prozesua lantzen ari dira. Zazpikaleetan esku-hartzen duten interes talde guztien beharrak orekatzea lortu da nolabait, haien arteko bizikidetzat hobe sortuz.

b. TAO/OTA EREMUA AUZO GEHIAGOTARA ZABALTZEA

2020 – 2025 aldian, TAO/OTA eremua San Inazio, Ibarrekolanda, Elorrieta, La Peña eta Arangoitira zabaldu zen.

2025ean, eremu berri bat diseinatu zen Zorrotzaurren eta 2026ko lehen hiruhilekoan sartuko da indarrean. Beste auzo batzuk ere aztertu ditu eremua handitu ahal izateko, barrutiek hala eskatuta.

c. KONTROL KAMERAK INSTALATZEA

Kamerak instalatu dira hirian eta zamalanetako eremuak eta ordutegiak etengabe ari dira eguneratzen, merkatarien eta/edo banatzaileen irizpide teknikoaren eta eskaeren arabera. Aldizkako bilerak egiten dira banatzaileekin mugikortasun-klusterraren bidez. Hala ere, Bilboko osoko bilkurak konpromisoa hartuko du laster zamalanen eremuaren erabilerari eta kokapenari buruzko azterketa/lana egiteko.

B.4 AZKEN MILIAKO BANAKETA JASANGARRIRAKO SOLUZIO LOGISTIKOAK	Lehentasuna	Inpaktu handia	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila	Laguntzaileak: - Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saila (Bilboko Udala) - Bilbao Dendak - Zonaldeko merkataritza-elkartek	

JARDUEREN DESKRIBAPENA


- a. MERKATARITZA EREMU NAGUSIKO APARKALEKUAK ERALDATZEA HIRIKO MERKATARITZA LOGISTIKARI ERANTZUTEKO
- b. MERKATARITZAKO BANAKETA ZERBITZU JASANGARRIAK HIRIAN
- c. MUGIKORTASUN FOROAK ETA MUGIKORTASUNAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ARLOTIK DINAMIZATUTAKO PROZESU PARTE HARTZAILEAK

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 2 aparkaleku eraldatzen ari den merkataritza gunen nagusian
- 2 banaketa-zerbitzu jasangarri (Zazpikaleak eta Mezzua) martxan jarrita eta funtzionamenduan
- 2 mugikortasun foro-talde
- HMJP berrikusteko prozesu parte-hartzaile 1

a. MERKATARITZA EREMU NAGUSIKO APARKALEKUAK ERALDATZEA HIRIKO MERKATARITZA LOGISTIKARI ERANTZUTEKO

- **Zabalgune Berriko aparkalekua:** galibo libreko lehen solairua eta 2,6 metroko instalazioak izango dituen proiektua, banaketa-ibilgailuak sartu ahal izateko (2026an obrekin jarraituko dute).
- **Indautxuko aparkalekua:** elektromugikortasunerako eta logistikarako Huba garatzea (lizitazio-prozesuan).



b. MERKATARITZAKO BANAKETA ZERBITZU JASANGARRIAK HIRIAN

Hirian, bi ekimen daude egun merkataritzako banaketa jasangarriagoa sustatzeko:

- **Azken miliako banaketa jasangarria Bilboko Zazpikaleetan:** A.1.4 puntuan deskribatutako zerbitzua. Zazpikaleak: esku-hartze bereziak
- **Mezzua:** 2024an martxan jarri zen ekimen pilotua da. Bilbao Denden eta Bilbao Ekintzaren artean sustatu zuten eta etxeko banaketa-zerbitzu jasangarria eta soziala eskaintzen du tokiko merkataritzaren eskariak entregatzeko. Egun, establezimendu bakoitzak doako hiru bidalketa ditu eta hortik aurrera, saltokiak bere gain hartzen du zerbitzuaren kostua. Beharrezkoa da programaren funtzionamenduan eta aktibazioan hobekuntzak egitea: sektoreak ondo baloratzen duen arren ekimena, egun dauden joerek mugatu egin dute zerbitzuaren ezarpena, eta hasieran doakoa izan arren, ez ditu behar beste saltoki mobilizatu.



c. MUGIKORTASUN FOROAK ETA MUGIKORTASUNAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ARLOTIK DINAMIZATUTAKO PROZESU PARTE HARTZAILEAK

- **Bilboko Mugikortasun Jasangarriaren Klusterra:** Bilboko Udalak sustatutako espazio ireki eta parte-hartzailea da Helburua da mugikortasun jasangarrian interesa duten enpresak, erakundeak, elkarteak eta herritarrak elkartzea, udal-politikak eztabaidatzeko, proposatzeko eta jarraipena egiteko.
- **MHB mahaia (Merkantzien Hiri Banaketa):** lantalde espezializatua da eta sektoreka banatzen da. Bilerak egin dira HORECA kanalarekin eta merkatarien elkarteekin.
- **Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planaren (HMJP) berrikuspenera jorratzeko prozesu parte-hartzailea eta teknika.**

2

Omnikanalitatea eta modernizazio lehiakorra

A.- Digitalizazioa bultzatzea

A.1 Banakako digitalizazioa

A.1.1 Bultzada digital indibidualeko programa

A.2 Digitalizazio kolektiboa

A.2.1.- Proiektu digital partekatuak

A.2.2.- Elkarleen sarea 4.0

A.2.3.- Merkataritza eta Smart Citya

B. Enpresa mailako berrikuntza eta lehiakortasuna

B.1 “One to one” lehia-tutoretza

B.2 Serbitizazioa + “Bikaintasuneko” erosketa-esperientzia

C.- Enpresak Birdimentsionatzea eta Ekintzailatza

C.1 Enpresa-hazkundeari laguntza selektiboa emateko programak bultzatzea

C.2 Enpresa-transmisio tradizionaleko prozesuen aldaerak

C.3 Espezializazioko hiri-barrutiak: gaikako enpresa-ekimenak sustatzea + hutsik dauden lokalak optimizatzea

A.1 Banakako digitalizazioa

**A.1.1.- BULTZADA
DIGITAL
INDIBIDUALEKO
PROGRAMA**
Lehentasuna

Inpaktu handia +

**2020-2025eko
exekuzio-maila:**

Ezarrita

**Liderrak:**

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Bilbao Dendak
- Ejren Merkataritza Zuzendaritza
- Bilboko Merkataritza Ganbera
- Bizkaiko Foru Aldundia
- CECOB

JARDUEREN DESKRIBAPENA

COVID-19ak jarduera tertziarioan eta komertzialean eragindako mugek baldintzatu zuten hein handi batean Bilboko Merkataritza Plan Estrategikoarekin hastea.


Testuinguru horretan, tokiko kontsumoa estimulatzeko neurrietan kontzentratu ziren baliabideak, hala nola bonuetan (Bilboko bonoa, ikusi 3. Ardatza), eta baita lehiakortasuna hobetzeko ildoetan ere, saltokien digitalizazio indibiduala zein kolektiboa sustatzeko hein handi batean.

Saltokien digitalizazio indibiduala sustatzeari dagokionez, 2020-2025 aldian ekimen hauek nabarmentzen dira:

- BILBAO EKINTZAK GARATUTAKO EKINTZAK** (Bilbao Zurekin, Mentoring digitala eta aholkularitza digitala eta Automatizazioaren eta adimen artifizialaren tailerrak).
- ERAGILE SEKTORIALEK GARATUTAKO EKINTZAK** Bilboko merkatarientzat.
- ENPRESEN DIGITALIZAZIO-RAKO ETA LEHIAKORTASUNERAKO BATZORDE TEKNIKOAK**

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Bilbao Ekintzak hiri-ekonomiako 357 enpresari lagundu die eraldaketa digitalean
 - 218 saltokik hartu dute parte Bilbao Zurekin programan
 - 60 enpresak hartu dute parte automatizazioaren eta adimen artifizialaren tailerretan
 - 55 enpresak jaso dute aholkularitza indibiduala (17 saltoki)
 - 24 enpresak (2 saltoki) jaso dute tutoretza
- Enpresen Digitalizaziorako eta Lehiakortasunerako Batzorde Teknikoa sortu da



a. BILBAO EKINTZAK GARATUTAKO EKINTZAK

Planaren lehenengo etapan, 2020 – 2022, Bilbao Ekintzak ekintza eta programa hauek garatu zituen eta hurrengo urteetan ekimen espezifikoagoetara eboluzionatu zuen.

- Bilbao Zurekin (2021): programa sortzeko arrazoa izan zen saltokien % 40 baino gutxiagok zuela bezeroen datu-basea⁸. Programaren helburua saltokiek bezeroei egiten dizkieten komunikazioak digitalizatzea izan da, CRM plataforma baten bitartez. Bilboko 218 saltokik hartu dute parte programan.
- **“Mentoring dual digital”** (2022), sentsibilizazio eta motibazio digitalerako foroan, orientazio-saioen eta audiotretza digitalen bitartez. Programa horretan Bilboko 24 enpresak hartu dute parte eta 2 saltokiak izan dira.
- **Aholkularitza digital indibiduala:** programa mistoa da eta 18 orduko iraupena du batez beste enpresa bakoitzeko. 55 enpresak hartu dute parte eta horietatik 17 saltokiak izan dira.
- **Automatizazioaren eta adimen artifizialaren tailerrak.** (2023 – 2025) 60 enpresaren parte-hartzearekin, tartean saltokiak eta zerbitzu pertsonaletako enpresak.



b. ERAGILE SEKTORIALEK GARATUTAKO EKINTZAK Bilboko merkatarientzat.

Bestalde, eragile sektorial guztiek (Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritza, Bilboko Merkataritza Ganbera, CECOBi eta Bilbao Dendak) hainbat ekimen sustatu dituzte Bilboko saltokien eraldaketa digitalean eragiteko.

- eus-Commerce programa
- Funts Teknologikoko programa da eta 2022an Bilboko 89 saltokik hartu zuten parte.
- Retail Euskal Eskola: Ikastaro espezializatua eta Eraldaketa Digitaleko goi-mailako ikastaroa.
- MEC programa (Hardwarea eta Softwarea)
- Kit Digitala (Red.es): Bilboko 14 saltoki CECOBiren bitartez
- Smart Retail
- Acelera Pyme (Ekonomia Gaiaren eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioa)
- Posizionamendu digitala hobetzeko proiektua: Bilboko 30 saltokik hartu dute parte online programa horretan⁹.
- Bilbao Dendak urteko prestakuntza-plana: Urteko 2 prestakuntza-ekintza egin dira osorik (Excel aurreratua 2022an, CRM 2023an, Berrikuntza eta AA 2024an).

c. ENPRESEN DIGITALIZAZIORAKO ETA LEHIAKORTASUNERAKO BATZORDE TEKNIKOAK

Programen testuinguru horretan, Bilbao Ekintzak lan espezifiko eta kolaboratiboa egin zuen 2023an Enpresen Digitalizaziorako eta Lehiakortasunerako Batzorde Teknikoaren inguruan (aurrez aurreko 3 topaketa egin ziren 2023an bertan), eta Bilboko saltokien digitalizazioa¹⁰ sustatzeko eragileek eta erakundeek (Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritza, Bilboko Merkataritza Ganbera, Bizkaiko Foru Aldundia, CECOBi, Bilbao Dendak eta Bilbao Ekintza) sortutako programa guztien mapatzea egin zen, inplikaturako eragile guztien ahaleginak koordinatzeko eta optimizatzeko.

A. DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA - ACTIVIDAD 2023										B. POSICIONAMIENTO Y CATEGORÍA	
ENTIDAD	A.1. Iniciativa	A.2. Año inicio	A.3. Finalización	A.4. Metodología	A.5. Indicadores Clave	A.6. Temporización	A.7. Responsables	A.8. Presupuesto	A.9. Impacto	B.1. Posicionamiento	B.2. Categoría
EUSKO JAURLARITZA	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
BILBOKO MERKATARITZA GANBERA	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
BILBAO DENDAK	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
BILBAO EKINTZA	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto
	Programa de Digitalización de Empresas	2020	2023	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto	Presupuesto

⁸ Bilboko saltokien % 38k soilik zuen bezeroen datu-base bat eta horietatik erdiak baino ez zuen erabiltzen bezeroekin komunikatzeko.

⁹ 532 ordu

¹⁰ Horrez gain, arlo hauei buruzko informazioa bildu da: Kudeaketa eta Marketina, Ekintzailetza, Enpresen transmisioa, Berrikuntza eta Hobekuntza lehiakorra eta Ezagutza Sektoriale

A.2 Digitalizazio kolektiboa

A.2.1.- PROIEKTU DIGITAL PARTEKATUAK

Lehentasuna

Inpaktu handia +

2020-2025eko
exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Bilbao Dendak
- Eremuko elkarteak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. BILBAO EKINTZAK GARATUTAKO EKINTZAK

b. ERAGILE SEKTORIALEK GARATUTAKO EKINTZAK

a.- BILBAO EKINTZAK GARATUTAKO EKINTZAK

Proiektu digital partekatuei dagokienez, eta Bilbao Ekintzak 2020-2021eko pandemia garaian sustatutako tokiko Marketplacen¹¹ esperientzien gainean egindako azterketa ikusita, udalerrian lan-ildo hori baztertzea erabaki zen.

2020 – 2025 aldian, Bilbao Ekintzak digitalizazio kolektiboaren gainean sustatutako lan-ildo hauek nabarmentzen dira:

- Abiapuntu gisa, 2020 – 2021 aldian Bilboko saltoki guztien diagnostiko digitala egin zen.
- Ondoren, Batuz enpresa-jardunaldiak egin dira urtero. 2025eko azken edizioan, jardunaldia Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera egin da, Batuz-TicketBai estrategia ezagutarazteko 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrez aplikatu behar duten erakundeei.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Bilboko saltokien diagnostiko digitala
- Bilbao Ekintzak bultzatutako 5 Batuz jardunaldiak



b.- ERAGILE SEKTORIALEK GARATUTAKO EKINTZAK

Bestalde, Bilboko saltokiei eta produktuak saltzeko webguneei buruzko informazioa "metatzeko" ekimen hauek garatu dituzte beste eragile sektorial eta instituzional batzuek:

- "Eup" BFAREN eta BBKren erosketa-ataria
- Gertu <https://gertuapp.com/> aplikazioa, 2023ra arte egon zen aktibo
- Saltokien datu-basea Biblao Denden webgunean, 1.400 saltoki baino gehiagori buruzko informazioarekin
- "Bilbo Aisialdia eta Kultura" aplikazioa, Bilbao Centro elkarteak

CECOBIk digitalizaziorako proiektu sektorial espezifikoak garatu zuen altzarien sektorean, eta prestakuntza mistoa (aurrez aurre eta online) eskaini zuen. Bilboko 9 saltokik hartu zuten parte.

¹¹EUP! Bizkaiko Erosketen Web Ataria

A.2 Digitalizazio kolektiboa

A.2.2.- 4.0 ELKARTE
EHUNA

Lehentasuna

Inpaktu handia +

2020-2025eko
exekuzio-maila:

Prozesuan



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)
- Bilbao Dendak

Laguntzaileak:

- Eremuko elkarte-egitura.

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020 – 2025 aldian, aurrerapausoak eman dira tokiko elkarteek erabiltzen dituzten kanaletan eta tresna digitaletan (Bilbao Dendak eta Tokiko Elkarteak):

- Intranet Bilbao Dendak: Elkarteetako saltokiekiko harremanen % 90 digitalizatu egin da, eta hala harremana azkarragoa eta dinamikoagoa izan daiteke.
- Elkartearen ehunduraren presentzia handiagoa "online" kanalean: Instagram, Youtube, Facebook... Dinamizazio-jarduerak zabaltzeko aukera ematen dute, errealitate berrietatik hurbilago
- Whatsapp profesionala ezarri da elkartearen ehunduraren arteko komunikazioetarako lehentasunezko kanal gisa.
- Prestakuntza digitala zabalik dago Elkartearen Batzordeentzat: CRMren gaineko prestakuntza, online komunikazio-estrategiak...

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Ez dago adierazle espezifikorik

Nolanahi ere, elkartearen eta haien zuzendaritza-batzordeen digitalizazioa modu proaktiboagoan eta intentsuagoan landu behar du hiriko hurrengo Merkataritza Plan Estrategikoan.

A.2 Digitalizazio kolektiboa

A.2.3.- MERKATARITZA
ETA SMART
CITYA

Lehentasuna

Eraldatzailea
Osagarria2020-2025eko
exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)
- Obren, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoen Saila (Bilboko Udala)

Laguntzaileak:

- Bilbao Tik
- Kutxabank

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- BIOTIP – SMART TOURISM PROIEKTUA
- DETAILSHOP PLATAFORMA DIGITALA

a. BIOTIP – SMART TOURISM PROIEKTUA

Bilboko Udalak eta Red.es erakundeak Biotip – Smart Tourism proiektua jarri dute martxan hirian turismoa kudeatzeko plataforma digitala garatzeko. (*Ikusi 3, Merkataritzaren eta Turismoaren Binomioa ardatza*).

b. DETAILSHOP PLATAFORMA DIGITALA

Bilbao Ekintzak lankidetzaz hitzarmena sinatu du BilbaoTIKekin (Bilboko Udala) eta Kutxabankekin datu komertzial sektorialak biltzeko eta ustiatzeko, eta horrek Digital Detailshop Bilbao Plataforma garatzeko aukera eman du (*Ikusi Bilbao Retail Adimen Lehiakorraren 4, ardatza*).

ADIERAZLEAK 2020-2025

- BIOTIP 2022 – 2023 plataforma garatzea (kudeaketa turistikoa)
- Detailshop Bilbao 2022-2025 plataforma digitala sortzea

B.1 "ONE TO ONE" LEHIA-TUTORETZA

Lehentasuna

Inpaktu handia

2020-2025eko
exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Kanpoko enpresak (adituak)

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- MOOC AHOLKULARITZA**
- MENTORING BILBAO**
- ONLINE AUTOPRESTAKUNTZA**

2020 – 2025 aldian zehar, Bilbao Ekintzak laguntza-lerro hauek garatu ditu saltokien lehiakortasuna hobetzeko:

- AHOLKULARITZA MOOC** aholkularitza digitala arlo desberdinetan. Urtero 15 saltokik parte hartzen dute (2021-2022). Aholkularitza horrek ekintza hauek barne hartu ditu:
 - Ideiak eta negozio-aukerak sortzeko tresna sortzaileak (2022ko apirila – iraila)
 - Bezero eta hornitzaileekiko harremanak sustatzeko oratoria eta komunikazioa (martxoa/apirila-uztaila/iraila 2022)
 - Salmenta eta negoziozko komertzialaren prozesua (martxoa/apirila – uztaila/iraila 2022)
- MENTORING BILBAO:** arlo bakoitzean ospe nabarmena duten enpresen eta profesionalen arteko lankidetzak sustatzeko programa da, ezagutza transferitu ahal izateko eta lehiakortasuna eta enpresen jarduna hobetzeko. Horretarako, enpresa-jardueraren bat egiten ari diren pertsonak (tutoretza jasotzen duten pertsonak) eta ibilbide profesional eta enpresariak nabarmena duten pertsonak harremanetan jartzen dira. Azken horiek haien borondatez hartzen dute parte tutore gisa. Gainera, bi profilek erreferentziazko profesionalen tailer praktikoetan hartzen dute parte, alde bakoitzaren rola indartzeko, gaitasunak eta kompetentziak garatzeko, eta programaren helburuak eta onurak argitzeko. Guztira 98 enpresak hartu dute parte eta horietatik 25 sektore komertzialekoak dira.
- ONLINE AUTOPRESTAKUNTZA:** Ikastaroak izeneko Moodle plataformaren bidez, 2021etik aurrera prestakuntza-zerbitzu jarraitua eskaintzen zaie ekintzaileei, enpresa-kudeaketako eta jasangarritasuneko hainbat arlori buruzko edukiekin, deskargatzeko prestakuntza-bideo batzuen bidez.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Hiri-ekonomiako 100 enpresa inguruk (25 saltoki) jaso dute tutoretza Bilbao Ekintzaren partetik.

B.2 SERBITIZAZIOA + “BIKINTASUNEKO” EROSKETA ESPERIENTZIA	Lehentasuna	Inpaktu handia	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)	Kolaboratzaileak: Kanpoko enpresak (adituak)	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. BALIO ERANTSIKO ZERBITZUAK DISEINATZEA

2020 – 2025 aldi osoan zehar garatu du Bilbao Ekintzak merkataritza-programa hori, balio erantsia duten zerbitzuak garatzeko taldeko tailerren, aholkularitzaren eta bisita indibidualizatuen bitartez.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Balio erantsia duten 20 zerbitzu sortu dira tokiko saltokietan

Enpresaren izena	Balio erantsiko zerbitzu berria(k)
1. Alfa Bilbao	Bezeroentzako laguntza, makinen proba eta kartelgintza berria
2. Basara	Berriro tapizatze zerbitzua, webgune berria eta kartelgintza berria
3. La Manducateca	Harpidetza bidezko erosketak, gozatzen duten bezeroen taldea Pantailetan informazioa lokalaren barruan
4. Koloreak	Produktuen ordena, antolaketa eta kategorizazioa. Tailerren espazioa berritzea
5. Masquegorros	Kartelen zerbitzua ikusaraztea, QRak, apainketa eta prestaketa
6. Monge bitxi-denda	Sare sozialetako mezuak berritzea
7. Olga Yrazu Atelier	Zerbitzuaren garrantzia nabarmentzea jarduera ikusaraziz. Espazio fisikoa berrantolatzea
8. Equipo e viaje	Kartelgintza berria, produktuaren onurekin
9. Aurora Kids	Espazioen birbanaketa eta produktuaren ikusgarritasuna. Photocalla probalekuen eremuan
10. Egaña fruta-denda	Prestatutako produktuen packen salmenta, produktu berriak probatzeko aukera eta kartelgintza
11. Galeria 8360	Sare sozialen gaineko aholkularitza eta kudeaketa komunikazioaren arloko aditu baten partetik, bezero idealak erakartzen saiatzeko (kit digitala)
12. Vintique	Bezeroen alderdi emozionalean sakontzea vintage produktuei dagokienez
13. Customeus	Markaren aldre bat eta ezkontza osteko bezeroen esperientzien eremu bat sortzea dendan.
14. Trufas negras	Trufas Negras zerbitzuekin lotutako arreta-uneak eta telefonoaren edo Whatsapparen bidez egon daitezkeen kontsultak kontrolatzeko eta babesteko mekanismoak sortzea.
15. Estudio 14	Tailerrean zehar marka posizionatzeko elementuak gehitzea
16. La Dolce Vita	Erabilitako produktuak erosteko bulkada nola eragin daitezkeen pentsatzea.
17. Cerrajería Wilma	Telefono-deien kasuistikaren arabera jarraitu beharreko prozedurak aurrez aurreko unetik libratzeko
18. Insphyria	Dinamismoa eta zentzu ludikoa indartzeko baliabideak / helburuak / mezu inspiratzaileak gehitzea.
19. Delitxia	Dendan kontsumitzeko Delitxia proposamenen ikusizko gutuna sortzea. “Bisitariet-turistek” oparitarako eramateko oparien proposamenak
20. Lakarola Kintana	Produktuak “karolizatze” aukera izatea eta bezeroen zer eskari onartu erabakitzen laguntzeko irizpidea izatea hori.

C.1.- ENPRESA HAZKUNDEARI LAGUNTZA SELEKTIBOA EMATEKO PROGRAMAK BULTZATZEA


Lehenetasuna

Inpaktu handia
Eraldatzailea



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza
- Kanpoko enpresak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- AHOLKULARITZA ETA KOMUNITATE EKINTZAILEA**
- EUSKADIKO EKINTZAIETZA KOMERTZIALAREN I. KONGRESUA**

a. AHOLKULARITZA ETA KOMUNITATE EKINTZAILEA

Bilbao Ekintzak hainbat laguntza-lerro sustatzen ditu honen bitartez:

- Aholkularitza indibidualizatua 4 arlo hauetan: Digitalizazioa, Omnikanalitatea, Erabiltzailearen esperientzia eta Kudeaketa komertziala.
- Komunitate Ekintzailearen Dinamizazioa Kafesarean Gaiak eta Networking gisako ekimenen bidez; Enpresen pop-upa; Komunikazio-kanpainak; Bilbao Enpresen gala.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzak, Bilboko Ganberak eta Bizkaiko Foru Aldundiak saltokiei ekintzailertzan laguntzeko hainbat lerro garatu dituzte DEMaren bitartez (ABIAN, TALDEKA DIGITALA eta SAREKIN DAYS)

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Aholkularitza indibidualizatuen kopurua: 2.300
- Ekintzailertza-komunitateko parte-hartzaileen kopurua: 3.501
- "Ekin Retail" I. kongresuko parte-hartzaileak: 300

b. EUSKADIKO EKINTZAIETZA KOMERTZIALAREN I. KONGRESUA

2025ean, "Ekin Retail" Euskadiko Ekintzailertza Komertzialaren 1. edizioa egin zen Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzak eta Bilbao Ekintzak antolatuta, eta 300 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte. Ekitaldi horren —ziurrenik bi edo hiru urtean behin egingo da lurralde historiko desberdinetan— helburua da ekintzailertza garapen ekonomikorako eta lurralde-koheziarako motorra bihurtzea merkataritzaren sektorean, hitzaldien, mahai-inguruneen, konferentzien eta networking espazioen bitartez.



C.2.- ENPRESA- TRANSMISIO TRADIZIONALEKO PROZESUEN ALDAERAK

Lehentasuna

Osagarria


**2020-2025eko
exekuzio-maila:**

Ezarrita

**Liderrak:**

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza
- Bilboko Merkataritza Ganbera
- CECOB
- DEMA
- Bilbao Dendak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

A.- MERKATARITZAKO NEGOZIOEN TRANSMISIO PROGRAMAK ZABALTZEKO LAGUNTZA

Bilbao Ekintzak sustatutako Digitalizaziorako eta Enpresa Lehiakortasunerako Batzorde Teknikoaren barruan, merkataritzaren sektoreko enpresen transmisiorako programek dituzten erronka nagusiak partekatu ziren: Eusko Jaurlaritzak Bilboko Merkataritza Ganberaren bitartez kanalizatzen duen Berriz Enpresa eta DEMAren NEGOZION programarenak. Biler horien ostean, ahaleginak kontzentratzea eta baliabide publikoak optimizatzea adostu zen, eta Bilboko eragile sektorialek existitzen diren programak zabaltzeko elkarlana indartu zen.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Eragile instituzionalen eta sektorialen arteko lankidetzaren hitzarmena.

Hala, 2025ean sektoreen eta erakundeen artean lortutako adostasunak eta egindako aurrerapausoak udal-hitzarmen aitzindari batekin gauzatu ziren, eragileen ezagutza baliatzeko —adibidez, erretirotik gertu dauden saltokien parkea identifikatzea Bilbao Ekintzak egindako saltokien erradiografiaren bitartez— eta hainbat mailatan dauden programak indartzeko:

- **Transmisioaren zabalpena indartzea, saltokiak mantentzeko eta ekintzailertzan jarduteko formula gisa:** jardunaldien, komunikabideen, kongresuen eta abarren bitartez.
- **Existitzen diren transmisio-programak optimizatzea,** martxan dagoen negozio bat transmititzeko/eskuratze prozesua hobetzeko eta/edo sustatzeko zerbitzu gehigarrien bitartez (aholkularitza, prestakuntza, dirulaguntzak...).
- **Saltokiak atzemateko ahalegina indartzea** hainbat mailatako informazioaren bitartez: informazio orokorra ematea saltokiei erretiro-adina baino 5 urte lehenago gutxienez eta/edo informazio zehatzagoa eta pertsonalizatuagoa ematea saltoki batzuei (barruti bakoitzean bideragarri gisa edo ehundura komertzialarentzako traktore gisa identifikatutako saltokiak, 2 enplegatu edo gehiago dituzten saltokiak, kokapen 1 baino gehiago duten saltokiak edo ehun urtetik gora dituzten eta belaunaldi-txandaketarik ez duten saltokiak) (*Ikusi Ehun Komunitatea 3. ardatzean*).
- **Ekintzaileak atzemateko ahalegina indartzea** prestakuntza-zentroekin, etorkinen elkarteekin, aholkularitzekin, lan-orientazioa eskaintzeko langileekin, ekintzailertza-zentroekin eta abarrekin egindako lankidetzaren bitartez.

C.3.- ESPEZIALIZAZIOKO HIRI BARRUTIAK GAIKAKO ENPRESA- EKIMENAK SUSTATZEA + HUTSIK DAUDEN LONJAK OPTIMIZATZEA

Lehentasuna

Osagarria

2020-2025eko
exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Merkataritzako zonaldeko elkarteak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. INKUBAGAILU KOMERTZIALAK: "BILERAZI"

Bilboko inkubagailu komertzialean proiektuak "Bilerazi" du izena eta ekintzaileei leku-denbora komun bat eskaintzea du xede, enpresa-ekimenak martxan jartzen laguntzeko. Hala, Bilboko Udalak ekintzaileei laguntzen die lokalen alokairuaren eta erabileraren gastuak ordaintzen.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- "Bilerazi" lehen inkubagailu komertziala martxan jartzea

Lehen inkubagailu komertzialaren lokala etxabe batean dagoen **8. zenbakitik** du sarbidea, baina **beste sarbide bat ere badu Aretxaga kaleko 8. zenbakitik**. Zabalik egongo da ordutegi komertzialean eta hiru artisautza-negoziok izango dute hura erabiltzeko aukera, txandaka, elkar osatzeko eta sinergiak sortzeko.

Sei hilabetez erabil daiteke lokala, eta zortzi hilabetez gehienez ere. Aldi horretan zehar artisauek beren negozioen eta produktuen egokitasuna frogatu ahal izango dute, merkatuaren beharrei erantzuten ote dieten egiaztatu ahal izateko ingurune erreal batean.

Ekimen horiek Bilbao Ekintzaren ekintzailetza zerbitzuak baliozkotuko ditu aurretik. Inkubagailu horietan parte hartzeko oinarriak 2026ko otsailean egongo dira aktibo.



3

Bilbo Merkataritzako, Kulturako eta Aisialdiko Hiri gisa

A.- Komunitatea eta Marketina

A.1 Bilbo Komunitatea

A.2 Auzoen komunitatea

B.- Merkataritza-dinamizazio berritua

B.1 Dinamizazioa berritzea: kaleko ekitaldietatik CRMra

B.2 Tokiko kontsumoa berpizteko elkarlaneko tresnak: “Bonobilbao” kanpainarekin aurrera egitea

C.- Merkataritza eta Turismoa

C.1 Merkataritza eta Turismoa Binomioa

A.1.- KOMUNITATEA BILBO	Lehentasuna	Inpaktu handia +	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)	Kolaboratzaileak: - Bilbao Dendak - Merkataritza eremuetako elkarteak (Bilbo Zaharra eta Zazpikaleak)	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020–2025 aldian, merkataritza eremu nagusiko tokiko merkataritza sustatzeko eta ikusarazteko merkataritza dinamizatzeko hainbat kanpaina diseinatu eta egin dira urteko hainbat unetan. Gainera, eragin eta inpaktu handiko hiri-ekitaldiekin batera planteatu dira jarduketa horiek (adibidez, Frantziako Tourrarekin edo Bilbao BBK Live jaialdiarekin), ekitaldi horien erakartze-gaitasuna baliatzeko eta ehundura komertzialera itzuli ahala izateko.

Esparru horretan, bereziki adierazgarria da hirian proiektu edo ekimen hauek sustatzeko dinamizazio-ildoak.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 5 hiri-proiektu

a. Tokiko merkataritzaren “kalitatezko” moda	“Bilbao Fashion Week”
b. #BilbaoGabonak Eguberrietako kanpaina:	“Gabon hauetan Bilbo eskatu dut” + Gabonetako merkatura
c. Hiriko ehun urteko saltokiak:	“Ehun proiektua eta komunitatea: “Betiko dendak betirako – Comercios de toda la vida y para toda la vida”
d. Kontsumo arduratsuaren eta jasangarriaren gaineko sentsibilizazioa gazteen artean:	“Bilbao Gaztedenda” “Kontsumo Arduratsuaren eta Jasangarriaren Sentsibilizazio Kanpaina”.
e. Ibilbideak eta bisitak hiriko tokiko komertzioetatik biztanleentzat eta bisitarientzat:	“Hemengo Shopping”

a. TOKIKO MERKATARITZAREN “KALITATEZKO” MODA: “BILBAO FASHION WEEK”

Bilbao Fashion Week Bilbao Ekintzaren ekimen estrategikoa da eta eremuko elkartearen laguntza jasotzen du (Bilboko Erdigunea eta Zazpikaleak) tokiko merkataritzak eskaintzen duen **kalitatezko** modaren posizionamendua indartzeko eta iparraldeko eremuko erosketa-hiri nagusi gisa kokatzeko.

Urtean bi hitzordu nagusi izaten dira, bata **maiatzean** eta bestea **azaroan, udaberri-udako** eta **negu-udazkeneko** denboraldiak erakusteko, hurrenez hurren.

- **Udaberria–Uda Moda (apirila–maiatza):** Bilboko Zazpikaleetako moda, kultura eta gastronomia aurkezteko eta sustatzeko urteroko ekitaldia da, eta tokiko produktuari garrantzia ematea eta inguruko komertzioen markei, diseinuei eta proposamenei protagonismoa ematea du helburu. Egitarauaren barruan publikoarentzako tailerrak, aholkularitza pertsonalizatua, ibilbide gastronomikoak, desfileak eta musika-emanaldiak izaten dira beste jarduera batzuen artean. Horrek modaren, osagarrien, bitxien eta gastronomiaren arloko udaberri-udako joerak ikusarazteko aukera ematen du.
- **Udazkena–Negua moda (azaroa):** **BilbaCentro** elkarteak **Bilbao Ekintzaren laguntzarekin** garatutako programazioa da. Jardueren agenda bat du (desfileak, workshopak, talk-showak, espezializatutako tailerrak eta erakusketak) eta **astebete baino gehiagoko iraupena** izan ohi du. Hala, hiriko erdiguneko merkataritzaren ikusgarritasuna eta erakargarritasuna indartzen da urteko garai horretan.




b. #BILBAOGABONAK EGUBERRIETAKO KANPAINA:

- **“Gabon hauetan Bilbo eskatu dut” kanpaina:** Bilbao Ekintzak Bilbao Dendekin batera sustatutako kanpaina da, hiria Gabonetako erosketak egiteko, aisialdirako, kulturarako eta ostalaritzarako espazio gisa sustatzeko. Inguruko lurraldeetako bisitariak erakartzeko asmoa du, irratia, telebistaren eta komunikabide digitalen bidez egindako kanpo-kanpainen bitartez.
- **Gabonetako merkatua:** tokiko komertzioek presentzia izaten dute txaboletan (26 izan ziren 2024an eta 35 azken edizioan Kasilda Parkean) eta **#BilbaoGabonak** egitarauaren barruan egoten da merkatua. Jende askoko ekimena izaten da eta gastronomiarekin, opariekin eta gabonetako apaingarriekin lotutako eskaintza handia izaten da.



3. ardatza: BILBO MERKATARITZAKO, KULTURAKO ETA AISIALDIKO HIRI GISA SUSTATZEA

- Zabalpen-materialak egitea: ehun urteko komertzioen liburu-katalogoa, eskuorriak, ehun urteko komertzioak jasotzen dituen eta bi urtean behin editatzen den planoak, bideoak, komertzioentzako plaka bereizgarria ("baldosa"), sare sozialetan edukiak sortzea...
- Erakusketa ibiltaria Uribitarte pasealekuan, Indautxun eta Zazpikaleetan; ikusizko ibilbidea eta gizatiarra tokiko merkataritzaren historia bizian zehar, hiriko komertziorik enblematikoenen ibilbidea ikusarazteko 52 argazki jasotzen dituzten 26 egitura metalikoren bitartez.



d. KONTSUMO ARDURATSUARI ETA JASANGARRIARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

d.1.- “BILBAO GAZTEDENDA”: Gazteen segmentua

2025ean, hiri-proiektu berri bat jarri zen martxan tokiko merkataritza Bilboko gazteei (14-16 urte) hurbiltzeko eta kontsumo arduratsuaren eta jasangarriaren kultura sustatzeko.

Bilbao Ekintzak bultzatutako ekimenak zortzi ikastetxeren (barruti bakoitzeko bana) eta hiriko zortzi komertzioen laguntza izan du.



Proiektua goizeko saioetan garatu da eta jarduketa hauek egin dira:

[esteka](#)

- Erosketa- eta kontsumo-ohituren ondorioen gainean gogoetatzeko eta tokiko merkataritzari balio erantsia emateko **Escape Rooma** (auzoko ekitaldiei laguntzea, zerga-ekarpena, etab.), kalitate baxuko produktuak edo, kasu batzuetan produktu faltsuak, eskaini ditzaketen plataforma handiekin kontrastatzeko.
- **Ikasgelako topaketak auzoko merkatariekin**: gazteengandik gertu dauden arloekin lotuta (kiroleko arropa, liburuak-papergintza, etab.) egin dira eta horrek tokiko kontsumoen gaineko ideiak eta pertzepzioak trukatzeko aukera eman du.
- **Kontsumo bonoak tokiko merkataritzan** segmentu hori fisikoki establezimenduetara hurbildu dadin eta gertuko erosketak esperimentatu ditzan sustatzeko.

Lehen fase horretan, **500 ikaslek** hartu dute parte gazte gehiagorengana iritsi ahal izateko eta denboran zehar iraungo duen esku-hartzea finkatzeko, hiriaren apustu gisa.

d.2.- Kontsumo Arduratsuaren eta Jasangarriaren Sentsibilizazio Kanpaina

Bilbao Dendak komertzioen plataformak kanpaina bat du kontsumo-eredu azkarrak eta erabili eta botatzekoak dituen ondorioen gainean sentsibilizatzeko. “Konpulsibitisa?” eta “Merketrosis erreumatikoa?” gisako mezu umoretsuen bitartez, herritarren kontsumo-ohitura konpulsiboak diagnostikatu ditu kanpainak eta tokiko merkataritzaren errezeta eskaintzen du soluzio gisa, eredu horrek kalitatezko produktuak, hurbilekoak eta arduratsuak eskaintzen dituelako.


“Kontsumitzeko beste modu bat posible da” lelopean, errua kontsumitzaileei egozten dieten ikuspegietatik urruntzen da kanpaina eta erantzukizunaren eta gogoetaren alde egiten du. Arreta gure erosketa-erabakietan jarritz gero, herritarrek beraien erosketen jatorriaren, ekoizteko moduaren eta ingurunean duten inpaktuaren gaineko gogoeta egin dezakete. Tokiko merkataritzaren alde egiterakoan eta tokiko ekonomiari ekarpenik egiten ez dioten plataformetako erosketa masiboetatik urruntzerakoan, hiri eta gizarte jasangarriagoa eraikitzen dugu.

e. HEMENGO SHOPPING

HEMENGO SHOPPING finkatutako proiektua da hirian eta merkataritzako hiri-plataformek zuzentzen dute (Bilbao Dendek Bilboren kasuan), Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Zuzendaritzaren laguntzarekin eta Bilbao Ekintzaren sustapenarekin. Helburu nagusia **publikoa Bilboko denda fisikoetara erakartzea da, hiriko ibilbide gidatu tematikoen, tailerren, dastatzeen eta bestelako jardueren bidez. Online edukiak eta ibilbide digitalizatuak ere eskaintzen ditu.**

Gainera, trukearen eta ikaskuntzaren urteko dimentsioa biltzen du programak, **E-ncuentro HemenGO SHOPPINGen** bitartez. 2024an, **II. E-ncuentro** egin zen Azkuna Zentroan eta esperientziak trukatu ziren, besteak beste, Madrilekin, Boloniarekin eta Milanekin. 2025ean egin zen **III. E-ncuentro** eta hiri-merkataritzaren berrikuntzaren eta etorkizunaren gainean inspiratzeko eta kontrastatzeko jardunaldia izan zen.

Egun, **urtean 60 jarduera baino gehiago** egiten ditu ekimenak, eta **100 establezimendu baino gehiagok** hartzen dute parte.



[esteka](#)

A.2.- AUZOEN KOMUNITATEA

Lehentasuna
Inpaktu handia +

**2020-2025eko
exekuzio-maila:**
Prozesuan

Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)
- Zonaldeko merkataritza-elkarteak

Laguntzaileak:

- Bilbao Dendak
- Bilbao Zerbitzuak
- Bizitza Kalitatearen eta Zerbitzuen Saila (Espazio Publikoa) (Bilboko Udala)
- Bilboko Udaleko Osasuna eta Kontsumoa Saila

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- EREMUKO ELKARTEEN DINAMIZAZIO KOMERTZIALA**
- ZABALGUNEKO MERKATARITZA EREMUAREN SUSTAPENA**
- UDAL MERKATUEK KOMUNITATERAKO ETA TOKIKO KONTSUMORAKO ESPAZIO GISA DUTEN GARRANTZIA INDARTZEKO KANPAINAK ETA EKIMENAK**

2020–2025 aldian zehar, hainbat ekintza garatu dira identitate tertziarioa eraikitzeke eta merkataritzako gastua auzoetan atxikitzeke. Hurrengo Merkataritza Plan Estrategikoaren erronka da aurrerapausoak ematea hiri gisa merkataritzaren arloko kontakizun partekatuak, homogeneoak eta tokiko merkataritzaren salmenten gainean inpaktu handiagoa dutenak garatzeko.

ADIERAZLEAK 2020-2025:

- Eremuko 16 elkarteren dinamizazio-jarduerak
- 2025: 75.000 € Udal Merkatuei garrantzia emateko kanpaina
- Elikadura osasungarriari buruzko tailerrak (2022-2025):
Pertsonak: 2.826 pertsona
Aurrekontua: 106.287 €

a. EREMUKO ELKARTEEN DINAMIZAZIO KOMERTZIALA

2020–2025 aldian zehar, eremuko hiru merkataritza-elkarte berri sortu ziren. Planaren hasieran (2021) La Peña-Abusu (Abusu Kom) eta Irala (Iralaberri) elkarteak sortu ziren. Ondoren, 2025ean, La Casilla elkarteak sortu zen. Hortaz, eremuko 16 elkarte daude gaur egun guztira (Erriberako Merkatuaren Elkarteak barne), eta horitako 14 Bilbao Dendak hiri-merkataritzaren plataformaren barruan daude.



16 eremu elkarteek udalaren laguntzarekin eta finantzazioarekin batera **2020–2025** aldian egindako dinamizazio komertziala askotarikoa eta zabala izan da. **Jarduera esanguratsuen lagin bat** jaso dugu jarraian, auzoetan egin diren jarduera moten eta kanpainen adibide gisa:

- **Deustu: Deusto Ibiltoki pasarela**, Deusto Bizirik elkarteari atxikitako komertzioen parte-hartzearekin, modaren arloko komertzioak eta auzoko zerbitzuak ikusarazteko. Gainera, **“Deustu Gara”** kanpaina egin da auzoaren nortasuna indartzeko eta tokiko merkataritza lehenesteko.
- **Zorrotza: Auzoko moda-desfilea**, modaren arloko komertzioen eta zerbitzuen parte-hartzearekin. Formatu esperimentalak izan zen eta bezeroek desfilaratu zuten. Ekintza **hitzaldi eta tailerrekin** osatu zen, ikuspegi parte-hartzailea eta ikaskuntza indartzeko.
- **San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala: “Retratos de un Barrio – Etxekoak / Zorionekoak”** ekimenak erdigunean jartzen ditu bezeroak eta auzoaren kontakizun komunitarioa sortzen du, pertsona ezagunen laguntzarekin (txefak, kazetariak, kirolariak, etab.). Ehundura sozialarekin eta komertzialarekin lotutako **erakusketa/ekintza kultural** formatuan egin da.
- **Santutxu**: merkatarien elkarteak kanpainen eta ekitaldien ibilbide historikoa mantendu du, eta ohiko ekintza batzuk egiten ditu, besteak beste, **“Nik Santutxun erosten dut”** (hainbat hilabetez), **“Stocka”** eta **“Merkataritzaren Eguna”**, tokian erostea sustatzeko eta auzoko merkataritza-jarduera dinamizatzeko.
-

Garatutako jardueren zorroa handia izan arren, **sinbologia eta kontakizun partekatu bat integratzea falta da**, auzo bakoitzaren izaera komertziala modu homogeneoagoan indartzeko.

b. ZABALGUNEKO MERKATARITZA EREMUAREN SUSTAPENA

BMPE2025en garapenean, lankidetza-hitzarmena egin da eragile sektorialen eta Bilbao Ekintzaren artean Zabalguneko merkataritza eremua sustatzeko, egun obretan egon arren. Bilbao Dendak, Bilbao Centro eta Bilbao Ekintzaren artean sinatutako hitzarmen horren barruan, sare sozialetarako argitalpenak egin dira, dinamizazio-ekintzak sortu dira urteko hainbat unetan eta prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzak jarri dira martxan Bilboko Merkataritza Ganberarekin eta Retail Euskal Eskolarekin batera (Eusko Jaurlaritza).

c. UDAL MERKATUEK KOMUNITATERAKO ETA TOKIKO KONTSUMORAKO ESPAZIO GISA DUTEN GARRANTZIA INDARTZEKO KANPAINAK ETA EKIMENAK

Bilbao Zerbitzuak erakundeak Udal Merkaturen Sustapen Komertzialerako Plana garatu du aldi horretan zehar. Horrez gain, elikadura eta bizimodu osasungarriak sustatzeko ekintzak garatzen lagundu du.

c.1 Udal Merkaturen Sustapen Komertzialerako Plana

Merkaturen sustapen komertzialari dagokionez, Bilbao Zerbitzuak erakundeak dirulaguntzen deialdi bat atera zuen 2022an¹² merkatuetan sustapen komertzialerako ekintzak egiten laguntzeko: 1.- Merkatuak jasangarritasunerako eta kohesio sozialerako eragileak; 2.- Merkatua auzoari hurbiltzea (elkarleen ehundura soziala; L-J artean programatutako ekintzak lehenestea); 3.- Pertsonen prestakuntza (serbitizazioa, digitalizazioa).

Udal Merkaturen Sustapen Komertzialerako Plana 2022–2023an mantendu zen. Hala ere, erabaki zen inpaktu handiagoa izateko komenigarria izango litzatekeela baliabideak merkatu guztientzako esparru bateratu eta globala definitzera bideratzea, Hornidura Merkatuek hiri osoan duten irudia eta posizionamendua indartzeko.



Gogoeta horren harira, Bilbao Zerbitzuak erakundeak kanpaina espezifikoak sustatu zuen 2025ean Udal Merkaturen balioak ikusarazteko —produktu freskoa, hurbiltasuna, tratu gizatiarra eta jasangarritasuna—. “Gauza batzuk beti daude boladan. Aititak eta amamak ondo zekiten” zen lelo nagusia eta merkatuen esentzia laburbiltzeko mezuak ere sortu ziren: “Erosi produktu freskoa. Erosi bertako produktua” Emozioa ekintza bihurtzeko, kanpainak call to action zuzena ere bazuen: “Igo gurdira!”. “Merkati”, Bilboko Udal merkaturen sinbolo berria izan zen protagonista.

c.2 Elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko tailerrak eta ibiltarien Sarea

Horrez gain, Bilbao Zerbitzuak erakundeak —2022tik aurrera— elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko tailerretan eta ibiltarien Sarearen programan duen parte-hartzea nabarmendu behar da. Bilboko Udaleko Osasuna eta Kontsumoa Sailak sustatzen ditu bi ekimenak.

- Elikadura osasungarriari eta jasangarriari buruzko tailerrak desberdintasun-egoeran dauden eta elikadura-ohiturak hobetu nahi dituzten pertsonen daude zuzenduta, kolektibo zaurgarrien artean autozaintzaren eta osasunaren gaineko ezagutzak handitzeko.
- Bestalde, ibiltarien Sarearen helburua osasuna sustatzea da, eta horretarako jarduera fisikoa sustatu eta elikadura osasungarriarako jarraibideak zabaltzen ditu. Balio horiek erosketan jasangarriarekin eta produktu freskoaren, sasoikoaren eta gertukoaren kontsumoarekin daude lotuta daude zuzenean, batez ere hiriko udal-merkatuetan.

¹² 2022ko aurrekontu-zuzkidura: 40.000 € (678 € postu bakoitzeko gutxi gorabehera)

B.1.- DINAMIZAZIOA BERRITZEA: KALEKO EKITALDIETATIK CRM-RA

Lehentasuna

Inpaktu handia

2020-2025eko
exekuzio-maila:

Prozesuan



Liderrak:

- Bilbao Dendak
- Zonaldeko merkataritza-elkarteak

Laguntzaileak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)
- Bizitza Kalitatearen eta Zerbitzuen Saila (Espazio Publikoa) (Bilboko Udala)

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020–2025 aldian dinamizazio-kanpainen diseinuan egindako aurrerapausoak bi joerarekin daude lotuta batik bat:

- **Merkataritza aisialdian eta kulturen integratzea**, eta “**erosketa-esperientzia**” sustatzeko bilakaera izatea.
- **Sustapen-kanpainak digitalizatzea aplikazioen, QR kodeen eta WhatsApparen bitartez**, eta **ekintzak segmentatzeko, bezeroak erregistratzeko eta inpaktua neurtzeko** tresnak gehitzea.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Ez dagokio

Azken urteetan, Bilbao Dendak erakundeak eta eremuko elkarteek dinamizazio komertziala berritzeko lehen urratsak egin dituzte udalarekin batera, merkataritzaren eskaria segmentatuz eta bezeroen erregistroak gehituz.

Hiriko hurrengo Merkataritza Plan Estrategikoari begira, ildo hori finkatu beharko litzateke, eta aurrerapausoak eman beharko lirateke segmentuen araberako —adibidez, gazteak edo familia gazteak— dinamizazioa egiteko eta negozioetan inpaktu komertzial handiagoa lortzeko.

B.2.- TOKIKO KONTSUMOA SUSPERTZEKO LANKIDETZA-TRESNAK: "BONOBILBAO" KANPAINAREKIN AURRERA EGINEZ

Lehentasuna

Inpaktu handia



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Bilbao Dendak

JARDUEREN DESKRIBAPENA

a. #BONO BILBAO

b. OPARI TXARTELA/TARJETA REGALO

a. #BONO BILBAO

Pandemiaren testuinguruan, Bilbao Ekintzak #BonoBilbao sustatu eta dinamizatu zuen: 30 €-ko balio nominala zuten (15 € herritarrek jarritakoak eta 15 € udalak jarritakoak) 174.585 bonu igorri zitzaizkien saltokiei. Bonuak bonobilbao.eus webgunean eta Kutxabaneko kutxazainetan eskura zitezkeen. Bilboko tokiko merkataritza gastatzea sustatzeko kanpaina izan zen eta 2022ko ekainean amaitu zen. 100 saltokiko lagin baten bitartez komertzioen jasagarritasun ekonomikoa eta konpromiso maila ebaluatu ondoren, eta pandemia-egoera gainditu ondoren sektoreak bonuaren zati bat finantzatzeko borondaterik ez zuenez, Bilbao Ekintzak amaitutzat eman zuen neurria.

Ondoren, Bizikleta Bonuak sustatu ziren mugikortasun jasagarria eta erabilera sustatzeko, baita erosketak egiteko garaian ere, eta sektore horretako komertzio txikietan kontsumitzea bultzatzeko. Mantentze-lanetarako (50 €, 25 € herritarrek jarritakoak eta 25 € udalak) eta/edo erosteko bonuen (400 €, 200 € herritarrek jarritakoak eta 200 € udalak) bitartez gauzatu zen ekimena.

b. OPARI TXARTELA/TARJETA REGALO

Bestalde, udalaren laguntzarekin, Opari Txartela jarri zuen martxan 2022an Bilbao Dendak erakundeak. Udalerrri handi bateko tokiko merkataritza-eskaintza osoa barne hartzen duen lehen opari txartela izan zen. Bilbao Dendak erakundearen webgunearen bitartez eros zitezkeen txartel birtuala, eta establezimendu fisikoetan, zein online erosteko aukera ematen zuen, tokiko komertzioetan zein elkarteetako ostalaritza-establezimenduetan.

Egun, txartelak 50, 100 eta 150 €ko zenbatekoak mantentzen ditu eta zabalpen-potentzial handia eta hainbat kolektibo eta eskari-kanal atzemateko gaitasuna du, hala nola enpresa-opariak, eskolak (guraso-elkarteak), kirol-taldeak eta -erakundeak eta kultur erakundeak. Horrez gain, zozketetan eta sustapen-kanpainen ere erabiltzen da, besteak beste.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 174.585 bono saltokientzat (2020-2022)
- 2 tresna aktibo: Bizikleta Bonuak + Bilbao Denden Opari Txartela



1. ardatza

2. ardatza

3. ardatza: BILBO MERKATARITZAKO, KULTURAKO ETA AISIALDIKO HIRI GISA SUSTATZEA

4. ardatza

C.1.- MERKATARITZA ETA TURISMOA BINOMIOA	Lehentasuna	Inpaktu handia Eraldatzailea	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarritza	
	Liderrak: • Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala) • Bilbo Turismoa.	Laguntzaileak: • Bilbao Dendak • Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Saila	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

Bisitariaren aurrean hiriko tokiko komertzioari garrantzia emateko —eta, zehazki, **merkataritza-turismoa** binomioari—, 2020-2025 aldian hainbat ekimen egin dira, eta hiru hauek nabarmendu behar dira horien artean:

a. EROSKETA BEREZIEN TURISMO

PROIEKTUA: bizkaiko Foru Aldundia buru duen lurralde-ekimena, gaur egun martxan dagoena eta 2021ean hasi zena, Bilboko Udalaren eta sektoreko elkarteen laguntzarekin. Merkataritza lurraldearen turismo-aktibo gisa posizionatzea du helburu.

Marketin digitaleko kanpaina espezifikoak egiten ditu, estatuko turismoari zuzenduak (Bilbao Bizkaia Shopping sustapena), fam press ekintzak, influencer-ekin lankidetzak eta beste sustapen-jarduera batzuk ere bai. Proiektuan, halaber, saltoki bereziak identifikatuko dira, aldezturik ezarritako irizpideen arabera.

b. HIRIKO EHUN URTEKO MERKATARITZA (Ehun proiektua, ikusi 3. Ardatza “Bilboko Komunitatea”): ehun urteko komertzioen mapa zabalgarria zabaltzea hoteletan eta turistentzako harrera-puntuetan (Getxon, aireportuan, besteak beste), segmentu bisitariaren artean tokiko komertzioa sustatzeko.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 3 ekimen bisitarien segmentuaren aurrean tokiko merkataritza ikusarazteko



c. BIOTIP – SMART TOURISM OF BILBAO HIRI PROIEKTUA (2022–2023) Red.es-en “Turismogune

Adimendunak” ildoaren barruan kokatzen den ekimena da, eta turismoguneak kudeatzeko garaian IKTen aplikazioa sustatzea du xede, lurralde adimendunagoak konfiguratzeko, zerbitzu bereizgarriak eta lehiakorrak eskaintzeko, eta aldi berean garapen jasangarria eta irisgarria bermatzeko. Proiektuaren helburua bisitariaren esperientzia eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzea izan zen, Telefónica, Bilbao Ekintza eta Bilbao Tik eragileen parte-hartzearekin besteak beste.



1. ardatza

2. ardatza

3. ardatza: BILBO MERKATARITZAKO, KULTURAKO ETA AISIALDIKO
HIRI GISA SUSTATZEA

4. ardatza.

4

Lankidetza publiko-pribatua perfekzionatzea

A.- Elkarteak berriro bultzatzeko eta artikulatzeko programa

- A.1** Elkarteak modernizatzea eta indartzea ("Behetik gorako" 1. maila)
- A.2** Elkarteei laguntzeko kudeaketa-egiturak kontzentratzea eta arrazionalizatzea ("goitik beherako" 2. maila)

B.- Lurraldeko eta udalerriko merkataritza-politika instituzionalak optimizatzea

- B.1** Udalerrian eragina duten politika instituzionalen koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzea

C.- Bilbao retail adimen lehiakorra

- C.1** Hiri-ekonomiaren tokiko behatokia + urteko txostena

D.- BMPE2025 Gobernantza

- D.1** BMPE2025, Lidergoa eta Gobernantzarako Foroak

A.1.- ELKARTEAK MODERNIZATZEA ETA INDARTZEA ("BEHETIK GORAKO" 1. MAILA)	Lehentasuna	Inpaktu handia +	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Prozesuan	
	Liderrak: - Bilbao Dendak - Zonaldeko merkataritza-elkarteak	Laguntzaileak: Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

Ekintza-ildo hori atzeratu egin zen pandemiarengatik eta 2023an hasi ziren lehen urratsak egiten Bilbao Ekintzak bultzatuta.

Testuinguru horretan, Bilbao Ekintzak Elkartearen Ehunduraren Erradiografia egin zuen. Erradiografia hori egiteko, bilerak egin ziren eremuko 14 elkarterekin eta Bilbao Dendak erakundearekin, eta inkesta digital bat egin zen Bilboko establezimendu komertzial guztientzat —bai elkarteetan daudenentzat, bai elkarteetan ez daudenentzat—, elkartearen ehunduraren funtzionamenduaren gainean duten iritzia ezagutzeko.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Elkartearen Ehunaren Erradiografia
- Merkataritzako elkarte-sarea eguneratzeko planaren zirriborroa

Ondoren, Bilbao Ekintzak eta Bilbao Dendek merkataritzako **elkartearen ehundura Eguneratzeko Plana egin zuten, hiru hobekuntza-lerrotan egituratuta**. Bilbao Dendak erakundearen 2024ko Batzar Nagusian aurkeztu zuten plana.

Hauek dira aldaketaren gakoak:

- Bilbao Dendak erakundearen, eremuko elkartearen eta Bilbao Ekintzaren rola eta funtzioak egokitzea, merkataritza-sektoreak bizi duen eraldaketari erantzuteko.
- Jarduerak eta zerbitzuak egokitzea, elkartearen ehunduratik laguntza eraginkorra emateko Bilboko saltokiei.
- Elkartearen espazioa artikulatzea: Bilboko merkataritza-elkartearen egitura eratzea, laguntza partekatuen, lankidetzaren eta eskuragarri dauden baliabideen optimizazioaren parametroen pean.

Balantze gisa, norabide horretan urratsak egin diren arren, planteatutako proposamenari berriz ekin behar zaio garatzeko eta gauzatzeko. Bilbao Dendak erakundearen hurrengo Zuzendaritza Batzordearen esku geratuko da ekintza-lerro hori, Bilbao Ekintzaren laguntzarekin.

A.2.- ELKARTEEI LAGUNTZEKO KUDEAKETA- EGITURAK KONTZENTRATZEA ETA ARRAZIONALIZATZEA ("GOITIK BEHERAKO" 2. MAILA).

Lehentasuna

Inpaktu handia
Eraldatzailea



2020-2025eko exekuzio-maila:

Prozesuan



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)
- Bilbao Dendak

Laguntzaileak:

- Zonaldeko merkataritza-elkarteak...

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2020–2025 aldian zehar izandako eremuko elkarten ehunduraren eboluzioari dagokionez, hau nabarmendu behar da:

- **Hiru elkarte berri** sortu dira. Planaren hasieran (2021) La Peña-Abusu (Abusu Kom) eta Irala (Iralaberri) elkarteak sortu ziren. Ondoren, 2025ean, La Casilla elkarteak sortu zen.
- **Aurretik zeuden bi elkarte berriro martxan jarri dira:** Rekalde Bihotzean (Rekalde) eta Hiruauzo (San Inazio eta Ibarrekolanda).

2025ean, **eremuko 16 elkarte** zeuden guztira Bilbon (Planaren hasieran, 2021ean, baino hiru gehiago) eta Bilbao Dendak hiri-merkataritzaren plataforma. Plataforma horrek 16 elkarte horietatik 14 biltzen ditu.

Bestalde, aurreko ekintzan aipatutako elkarten ehundura eguneratzeko Planaren barruan planteatutako aldaketa-beharretako bat da lankidetzaren eta ekintza partekatua pean jardungo duen elkarten egitura sustatzea, eskuragarri dauden baliabide pertsonalak zein ekonomikoak optimizatzeko, batez ere elkarterik "ahulenekin". Eremuetako elkarteei laguntzeko eta kudeaketa-egiturak arrazionalizatu eta kontzentratu ahal izateko prozesu integrala.

ADIERAZLEAK 2020-2025

- Basurtu-Zorrotza-Errekalde 1. koordinazio eremua

Horretarako, lehen urratsa 2025ean **koordinazio eremuak** konfiguratzeko izan da. Lehenengoa **Basurtu, Zorrotza eta Errekaldeko elkarteekin izan da.**

Hitzarmen hori urrats esanguratsua izan den arren, 2026an gauzatzea falta da. Bilbao Dendak erakundearen hurrengo ekintza-ildoaren esku geratuko da ekintza-lerro hori, Bilbao Ekintzaren laguntzarekin.

B.1.- UDALERRIAN ERAGINA DUTEN POLITIKA INSTITUZIOALEN KOORDINAZIOA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA	Lehentasuna	Inpaktu handia	
	2020-2025eko exekuzio-maila:	Ezarrita	
	Liderrak: Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)	Kolaboratzaileak: - Bilbao Dendak - Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza - Bilboko Merkataritza Ganbera - CECOBI - Bizkaiko Foru Aldundia DEMA	

JARDUEREN DESKRIBAPENA

2023az geroztik, **Bilbao Ekintzak** lan-dinamika berri bat eta eragileen arteko lankidetzak handiagoa sustatzen du, eta horretarako **bi Batzorde Tekniko** jarri ditu martxan, gogoeta egiteko, koordinaziorako eta ahalegin instituzionalak, sektorialak eta udalekoak bateratzeko espazio modura:

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 2 Batzorde Teknikoak martxan jartzea

a. **MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNAREN ETA DIGITALIZAZIAREN BATZORDE TEKNIKOA:** batzorde hori BMPE2025ek planteatzen zuen moduan

sortu da, Bilboko merkataritza-ehunduraren gaineko politika instituzionalak optimizatzeko. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzak, Bilboko Merkataritza Ganberak, DEMAk, CECOBik, Bilbao Dendak eta Bilbao Ekintzak hartzen dute parte batzorde horretan. Batzordea 2023an eratu zen eta, lehenengo fasean, Bilboko komertzioetan eragina zuten programak partekatu eta ordenatu zituen, lau arlo nagusitan egituratuz. Lan-saioen eta -foroen bitartez, ikusizko tresna bat osatu zuten, programen eta ekimenen panoramika bateratua izateko. Dinamika horri esker, eragileak elkarrengana hurbildu ziren, eta 2024an modu espezifikoan jorratu zen ekintzailatza eta enpresen transmisioa sustatzeko erronka. 2025ean, **Elkarlan-hitzarmen aitzindaria** sinatu zuten Batzorde Teknikoko eragileak. 2. ardatzean jasota dago hori, C.2. “Enpresa-transmisio tradizionaleko prozesuen aldaerak”.

- 1 TRANSFORMACIÓN DIGITAL
- 2 GESTIÓN / MARKETING E INNOVACIÓN Y MEJORA COMPETITIVA
- 3 EMPRENDIMIENTO Y TRANSMISIÓN EMPRESARIAL
- 4 CONOCIMIENTO SECTORIAL

b. **DINAMIZAZIOAREN ETA HIRI ESPAZIOAREN BATZORDE TEKNIKOA:** 2025ean egin ziren Udaleko Hiri Espazioaren Sailaren eta eremuetako elkarteen artean Bide Orri bat diseinatzeko eta lankidetzak-formulak definitzeko lehenengo kontaktuak, kaleko jardueren programazioa koordinatzeko. 2026an zehar onartuko den koordinazioa hobetzeko eta prozesuak azkartzeko tresna da horren emaitza, eta, horrez gain, espazio publikoen eta elkarteen ehunduraren arteko lan-espazio bateratuak sortzeko aurrerapausoak emango dira.

C.1.- HIRI-EKONOMIAREN TOKIKO BEHATOKIA + URTEKO TXOSTENA

Lehenitasuna

Inpaktu handia
Eraldatzailea



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- BilbaoTik
- Kutxabank

JARDUEREN DESKRIBAPENA

BMPE2025en abiapuntua sektoreak hiri osoan zuen egoeraren diagnostikoa egitea izan zen. Diagnostiko horrek, halaber, monografiko batzuk jasotzen ditu barruti bakoitzeko (BMPE2025en 2. lan-koadernoan).

2020 – 2025 aldian zehar, Bilbao Ekintzak hainbat azterketa eta tresna garatu ditu egoeraren azterketa eta sektorearen eboluzioa hainbat ikuspegitatik osatzeko eta sakontzeko. Zehazki:

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 5 azterketa: Merkataritzaren 3 karakterizazio + Ardatz komertzialen azterketa 1 + lonjen 2 alokairu
- Detailshop Plataforma Digitala

- BILBOKO KOMERTZIOAREN KARAKTERIZAZIO AZTERKETA (ERRADIOGRAFIA)**
- BILBOKO ARDATZ KOMERTZIALEN AZTERKETA**
- ALOKAIRUKO PREZIOEN DINAMIKAREN TXOSTENAK**
- DETAILSHOP PLATAFORMA DIGITALA**

a. BILBOKO KOMERTZIOAREN KARAKTERIZAZIO AZTERKETA (ERRADIOGRAFIA)

Aldi horretan zehar hiru azterketa egin dira: 2021ean, 2023an eta 2025ean.

- Bilboko tokiko merkataritzaren karakterizazioari buruzko lehen azterketa (2021): komertzioa eta bere beharrak hobeto ezagutzeko, batez ere digitalizazioaren arloan. (2.695 komertzio inkestatu dira).
- Bigarren eguneraketa-azterketa (2023) 870 komertzioaren laginaren gainean. Irekitako eta itxitako negozioen ezaugarriari buruzko azterketa espezifiko.
- Hirugarren eguneraketa-azterketa (2025) 643 komertziori egindako kontsultaren gainean, bi azterketa hauen eboluzioa eta garapen espezifiko zein izan den ikusteko:
 - Eboluzioaren azterketa: azterketaren 3 edizioetan inkestatutako komertzioen erantzunen eboluzioa. Helburua urte horietan zehar komertzioaren ezaugarriak aldatu diren ala ez ikustea eta Barruti eta Azpisektore bakoitzaren arteko balizko desberdintasunak identifikatzea izan da.
 - Taldeak identifikatzea: Digitalizazioaren eta giza taldearen eta talde teknologikoaren arloan ezaugarriak partekatzen dituzten komertzioen 5 multzo identifikatu dira Askotariko Korrespondentzien Azterketaren bitartez.

b. BILBOKO ARDATZ KOMERTZIALEN AZTERKETA

Hiriko merkataritza eremuen egoera eguneratzeko azterketa —bai ardatz nagusiei dagokienez, bai auzoei dagokienez—. 2025ean egin zen, eta, Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (Eustaten) bitartez, merkataritza eremuen gaineko alderdiak aztertzeko aukera eman zuen: eskaintzaren dibertsitatea, komertzioen dentsitatea, pertsonen ugaritasuna, irismen geografikoa, etab. Hala, hiriko ardatz nagusiak, bigarren mailako ardatzak (auzoetakoak) eta ardatz berriak identifikatu ziren.

2026an osatu egingo da azterketa, identifikatutako ardatz bakoitzak duen nahasketa komertzialari buruz kalean jasotako informazioarekin. Lan horren helburua ekintzailtza komertzialarekin lotutako programak eta politikak babestea izan beharko da batik bat.

c. ALOKAIRUKO PREZIOEN DINAMIKAREN TXOSTENAK

Metodologia finkatzea eta lonja komertzialen alokairuaren prezioen dinamikari eta eboluzioari buruzko bi txosten egitea, auzo, barruti eta ardatz komertzial bakoitzaren arabera bereizita (*Ikusi 1 A.3. ardatza fatxada komertzialaren kudeaketa proaktiboa A.3.2.- OPEN DATA KOMERTZIALA "ALOKAIRUEN MAPA DINAMIKOA"*)

d. DETAILSHOP PLATAFORMA DIGITALA

Azterketa horiez gain, 2022an Bilbao Ekintza **Detailshop Plataforma Digitala** hasi zen diseinatzen Bilbon, Kutxabanken eta BilbaoTIken laguntzarekin: hainbat iturriren eta erakunderen datuak (JEI, udal-errola, Kutxabanken datuak, Eustat, etab.) integratzen dituen soluzio analitikoa da. Tresna horrek merkatuaren eta kontsumitzailearen jokabidearen ikuspegi zabalagoa eta xeheagoa eskaintzen du, eta balio erantsia duen informazioa sortzen du udalean, elkarteetan eta enpresetan (komertzioak) erabakiak hartzeko.



Egun, plataformatik eratorritako datuen komunikazio erregularra planifikatzen ari dira, txostenen bitartez eta langileei enpresa-aholkularitzaren arloko prestakuntza eskainiz.

- Urteko txosten tematiko konplexuak.
- Bilbao Ekintzak sektore komertzialari buruz neurritan egindako txostenak.
- Aholkularitza eskaintzeko neurritan egindako txostenak.
- CRMren bitartez zabaltzeko txosten sinpleak.

D.1.- BMPE2025, LIDERGOA ETA GOBERNANTZARAKO FOROAK

Lehentasuna

Inpaktu handia
Eraldatzailea



2020-2025eko exekuzio-maila:

Ezarrita



Liderrak:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua (Bilboko Udala)

Kolaboratzaileak:

- Bilbao Dendak; merkataritzako zonaldeko elkarteak
- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza
- Bilboko Udaleko sailak (Bilbo Turismoa, Kultura, Hirigintza, Mugikortasuna, Zerbitzuak eta Bizitza Kalitatea -Espazio Publikoa-, Hiritarren Segurtasuna -Merkataritzako eta Turismo Segurtasuneko Plan Espezifiko-).
- Bilboko Merkataritza Ganbera
- CECOB
- CC. Zubiarte
- El Corte Inglés

JARDUEREN DESKRIBAPENA

Hainbat foro eta batzorde tekniko egin dira aldi horretan zehar. Horrez gain, Bilbao Ekintzak kontaktu zuzena izan du eragile sektorial eta instituzional guztiekin —bai BMPE2025en diseinuan parte hartu dutenekin, bai ondorengo ezarpenean parte hartu dutenekin— elkarriketa indibidualen bitartez (banakoak). Halaber, Barrutietako Kontseiluetan hartu du parte BMPE2025 partekatzeko eta aurkezteko (2022an), eta Segurtasuneko tailerrak eskaintzeko (2020an). Eremuetako elkarten zati handi batek hartu zuen parte azken horietan.

Planaren garapenaren barruan, BMPE2025ren foro, espazio eta lorpen hauek nabarmentzen dira.

a. BMPE2025ENMERKATARITZAKO UDAL FOROA

b. BMPE2025EN BATZORDE TEKNIKOAK

c. BARNE MERKATARITZAREN SARI NAZIONALAREN OHOREZKO ACCESITA BILBOKO UDALARI

ADIERAZLEAK 2020-2025

- 6 Merkataritzako Udal Foro
- 2 Batzorde Teknikoak

a. BMPE2025EN MERKATARITZAKO UDAL FOROA

Eragile sektorial guztiak, instituzioak eta hiriko politikariak elkartzeko (**50 bat parte-hartzaile**) espazio nagusia izan da, **sei hilean behingoa**. **Alkatetzak, Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren, Enpleguaren eta Turismoaren zinegotzigoak** eta **Bilbao Ekintzako zuzendaritzak** hartu dute parte.

Saioen lehenengo zatian, BMPE2025en baitan garatutako **jardueraren balantzea aurkeztu** izan dute, eta, gero, **dinamika parte-hartzaile bat** egin. Azkeneko edizioan, **dialogoak edo elkarriketak** izan zituzten Planeko ardatzei eta ekintza-lerro zehatzei buruz.

Guztira, **sei foro** egin dituzte aldi osoan zehar (**2026ko** itxiera-foroa barne).

- 2022/06/23
- 2023/01/13
- 2023/11/20
- 2024/07/01
- 2025/06/30
- 2026/02/18



b. BMPE2025EN BATZORDE TEKNIKOAK

Lankidetzarako eta lanerako espazio operatiboagoak dira eta parte-hartze txikiagoa dute (5 eta 10 eragileren artean). Aurretik aipatu bezala, bi batzorde eratu dira orain arte: Merkataritzaren Lehiakortasunaren eta Digitalizazioaren Batzorde Teknikoa eta Dinamizazioaren eta Hiri Espazioaren Batzorde Teknikoa. Lehenengoak ibilbide luzeagoa du, 2023an jarri baitzen martxan, eta aldean arteko hitzarmen bat sustatu du ekintzailetzaren eta enpresa-transmisioaren gaineko lan koordinatua egiteko. Espazio horiek balorazio oso positiboa jaso dute eta eraginkorrak direla egiaztatu dute. Hurrengo planean landinamika horiek finkatzea bultzatuko da, Bilboko merkataritza-sektoreak dituen erronkei aurre egiteko.

c. BARNE MERKATARITZAREN SARI NAZIONALAREN OHOREZKO ACCESITA BILBOKO UDALARI

Azkenik, nabarmendu behar da Bilbok **Ohorezko Accesita** jaso zuela 2023an **Barne Merkataritzaren Sare Nazionaletan**, udalen kategorian.

Udaleko hainbat sailetatik merkataritza-sektorearen alde egindako lanaren, zein BMPE2025ren ardatzen gainean artikulatutako **lankidetzak publiko-privatuaren** garrantzia nabarmentzen du aitortza horrek. Horri dagokionez, **Merkataritzaren Udal Foroaren** rola elementu garrantzitsua izan da accesit hori lortzeko —sektoreko eragile guztien parte-hartzea duelako eta tokiko merkataritzaren politika publikoen gaineko elkarriketa eraldatzailea sustatzen duelako—.



